

URTEKO KONTUAK

1. Bateratze-perimetroaren aurrekari historikoak, izaera, xedea, jarduerak eta definizioa

1.1. Erakunde Menderatzailea

Iruñerriko Mankomunitatea (aurrerantzean Mankomunitatea edo Erakunde Menderatzailea), 1982ko uztailaren 2an eratu zen. Iruñerriko Mankomunitatea hartu zuen izena, Nafarroako Udal Administrazioaren Araubidearen babesean (V. kapitulua, 55. artikulua, d) atala). Plangintza Orokorreko Mankomunitate gisa eratu zen, lankidetz-eginkizunean Nafarroako Foru Diputazioak parte harturik. 1986ko abenduaren 24an egungo izena hartu zuen. Estatutuetan eta beren edukietan aldaketa garrantzitsuak egin ziren. Horretarako, lege- eta kudeaketa-esparru bat sortu zen, toki-erakundeei behar dituzten udalez gaindiko zerbitzuak ematea ahalbidetzen duena. 1991n estatutuak aldatu ziren berriz. Aldaketaren xede nagusia Nafarroako Toki Administrazioaren gaineko Foru Legea egokitzea izan zen. Azkenik, 2009ko ekitaldian, Estatutuak berriz aldatu ziren, Toki Administrazioaren alorrean izandako lege-aldaketetara egokitzeko. Hala ere, aldaketa horren aurkako helegitea aurkeztu zen, izapidetu eta onartu zenean erabilitako prozedura zela-eta. Horregatik, 2010ean beste izapidetze bat eman zitzaion, aurrekoa zela-eta alegatutako akatsak zuzentzen zituen. Izan ere, izapidetze hori burutu da ekitaldia bukatutakoan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2011ko apirilaren 8koan, behin betiko argitaraturik.

Hau da Mankomunitatearen helbidea: Aduanako Zokoa kalea, 12, Iruñea 2023ko azaroaren 15az geroztik (lehen, Chinchilla Jeneralaren kalea, 7).

Mankomunitatearen xedea da bere eskumenak betetzea, legez ezarrita daudenak eta bere lurralde-esparruaren barnean, titulartasuna duen gai hauetan:

- a) Edateko urez hornitzea, estolderia, eta hondakin-uren saneamendua eta arazketa.
- b) Hiri-hondakinak biltzea, tratatzea eta aprobetxatzea.
- c) Bidaiarien garraio publikoa.
- d) Taxi-zerbitzua, Iruñerrian taxi-zerbitzua batera emateko lurralde-eremuaren barnean.
- e) Iruñerriko Ibai Parkearen kudeaketa.

Era berean, Erakunde Menderatzailearen xedea hau da: neurria egokia eta beharrezkoa dela ziurtatzen duen txostenaren bidez, unean-unean titulartasuna egokiturik dituen gaietako ekonomia-jarduerak egitea.

Bere jarduera-esparrua da Mankomunitatean sartutako udalena. Udalak dira, beren ondasun eta baliabideen bitartez, Mankomunitateak hartzen ahal dituen betebeharrak, zuzenbideko beren biztanleen kopuruaren proportzio zuzenean, baldin eta Erakunde Menderatzailearen ondasunak betebeharrak estaltzeko nahikoak ez badira.

1989tik aurrera, sare nagusiko hondakin-uren saneamendua araututa dago, 3.9.1.3 oharrek zehazten duenarekin bat.

Taxiaren gaineko 9/2005 Foru Legearen, uztailaren 6koaren, Xedapen Gehigarri Bakarrek xedatzen du Mankomunitatea erakunde eskuduna dela antolatze eta kudeatze bateratuan, Iruñerrian taxi zerbitzua batera emateko lurralde-eremuan.

Horrez gainera, bere Estatutuen 6. artikulua xedatzen du Erakunde Menderatzaileak udalaren eskumenak gauzatu ahalko dituela ondoko gaietan, aldez aurretik horien titulartasuna harturik:

1) Hirigintza-arloko antolakuntza, kudeaketa, jarduketa eta araudia; etxebizitzak sustatu eta kudeatzea; parkeak eta lorategiak, hiri-errepide publikoak zolatzea; eta bideak eta landa-bideak zaintzea.

2) Ondare historiko-artistikoa.

3) Ingurumena babestea.

4) Hornidurak, hiltegiak, feriak, azokak, eta kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzea.

5) Hilerriak eta hileta-zerbitzuak.

6) Kale-bideak garbitzea.

7) Kultur- eta kirol-jarduerak edo instalazioak, aisiarako jarduerak, turismoa.

Bere helburuak garatzeko, Erakunde Menderatzailea Iruñerriko Zerbitzuak SA mendeko sozietatearekin aritzen da (aurrerantzean IZSA edo Mendeko Sozietatea). 1983ko urtarrilaren 4an eratu zen, eta ondoko izen soziala zuen: Iruñerriko Urak, S.A. (ACPSA). Egungo izena hartu zuen Batzar Nagusi Orokorrak hala ebatzi zuelako 1992ko ekainaren 26an egin zen saioan. Sozietate Menderatzaileak IZSAren kapital sozialaren % 100a du (ikusi 1.2. oharra).

1998ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen "Iruñerriko Mankomunitatea / Iruñerriko Zerbitzuak SA Harremanetarako Araudia", 1997ko urriaren 23an Mankomunitatearen Batzarrak behin betiko onespene eman ondoren. Araudi berri horrekin bat, Mendeko Sozietateak hartu zuen emandako zerbitzuen kudeaketa zuzena eta, horren ondorioz, emandako zerbitzuen erabiltzaile eta onuradunekin izan beharreko harreman juridikoaren titulartasuna. Halaber, horren barnean sartzen da aipatutako zerbitzuak emateagatik eta kobratzeagatik jasotzen diren diru-sarreraren titulartasuna. Horren ondorioz, harreman- eta kudeaketa-eredu berri honekin, Mankomunitatearen Batzarrak, 1997ko abenduaren 18an bilduta, ebatzi zuen Mendeko Sozietateari atxikitzea -1998ko urtarrilaren 1ean gauzatua- kudeaketaren xede diren zerbitzuei lotutako ondare osoa, 25 urtez gutxienez. Hori guztia gauzatzeko egingo den ekarpena izango da aipatutako ondarea eratzen duten ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiek osatutakoa.

Era berean, araudi berak ebatzi zuen indarrean sartzetik aurrera Mendeko Sozietateari dagokiola inbertsio berriak egitea, egin beharreko zerbitzuak eskaintzeko beharko direnak, 1998ko urtarrilaren 1ean eraikitzen ari zirenak barne. Tokiko erakundea denez Mankomunitatea dirulaguntzen titularra da, indarrean dauden lege- eta administrazio-ebazpenekin bat. Hainbat erakunde emandako dirulaguntza hauek inbertsioen zati handi bat finantzatzen laguntzen dute. Azpimarratzekoak dira Toki Azpiegituren Planen bitartez jasotakoak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatutakoak eta kudeatutakoak. Dirulaguntzak beren xederako ezarriak izan daitezten, hau da, inbertsioak gauzatzeko, Mankomunitateak Mendeko Sozietateari transferitzen dizkio aipatutako zenbatekoak.

2014ko uztailaren 1ean, Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrak, Ibai Parkea kudeatzeak zekarren gero eta konplexutasun handiagoa ikusirik eta Erakundearen zerbitzuetan egoki sartzeko, hitzartu zuen "Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietateari atxikitzea, Uraren Ziklo Integraleko zerbitzuak ematea zuzenean kudeatzen duen enpresa denez, Mankomunitatearen Ibai Parkeari atxikitako ondasun guztiak, 1997ko abenduaren 18an Mankomunitateko Batzar Nagusiak egin zuen atxikitzearen baldintza berberetan eta epe berbererako (2022ko abenduaren 31)". "Iruñerriko Zerbitzuak SA subrogatu zen, 2014ko uztailaren 1ean, Iruñerriko Mankomunitateari aipatutako parke horrekin lotuta zegozkion eskubide eta betebeharrak guztietara, eta hari atxikitako aprobetxamendu energetikora, eta bereziki udal hauekin hitzartutako ekarpenen kopuruetara: Barañain, Burlata, Eguesibar, Esteribar, Ezkabarte, Uharte, Atarrabia eta Zizur Nagusia. Alde batera utzirik, Mankomunitateak likidatzea eta sozietateari ondoriozko transferentzia egitea".

2017ko maiatzaren 25eko akordioaren bidez, Barañaingo Udalbatzak onartu zuen Barañaingo udal barrutiko 1. poligonoko 121., 143. eta 156. udal-lursailen erabilera Iruñerriko Mankomunitateari lagatzea, Mankomunitateak Iruñerriko Ibai Parkearen barnean sar ditzan. Zehazki, baldintza hauen arabera laga zuen erabilera:

- Hasiera batean, iraupen-epea 20 urtekoa izango da, eta hura amaitzen denean lagatze-epe berria ezarri ahal izango da, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

- Erabilera-lagatzea dohainik egingo da. Iruñerriko Mankomunitatea behartuta egongo da lursail horiek Iruñerriko Ibai

Parkean sartzera, eta helburu horri eutsi beharko dio lagatzeak irauten duen epe osoan. Baldintza hori ez betetzeak berekin ekarriko du lagatzea amaitzea eta Udalak lursailak berreskuratzea, edo ondoriozkoa dena.

- Iruñerriko Mankomunitateak bere gain hartuko du lursail horiek egokitzea eta haietako mantentze-lanak egitea, izango duen xedearen arabera, eta horretarako beharrezkoak diren jarduketak gauzatu beharko ditu, Mankomunitateko teknikari arduradun Alfonso Amorena jaunaren 2017ko maiatzaren 8ko txostenean jasota dagoen moduan.

- Lagatzerako oro har ezarri den epea alde batera utzirik, 143. eta 156. lursailen kasuan –Eultzako Jaurerriaren inguruneke UE-2 unitatearen plangintzak ukitzen dituenek–, plangintza hori gauzatzeko urbanizatzeko jarduketaren bat egin beharko balitz haietakoren batean, lursail horien lagatzea eraginik gabe gelditu ahal izango litzateke. Horretarako, Barañaingo Udalak aurretiazko abisu bat emango lioke Iruñerriko Mankomunitateari, gutxienez, hiru hilabete lehenagotik.

- Lagatze-akordio honetan jaso ez denerako, une bakoitzean aplikatzekoa den araudi indardunak adierazten duenaren mende egongo da.

Mankomunitateko lehendakariak 2017ko maiatzaren 30ean eman zuen ebazpenaren bidez, Barañaingo Udalak Barañaingo udal barrutiko 1. poligonoko 121., 143. eta 156. lursailen erabilera Iruñerriko Mankomunitateari lagatzea onartu zen, Mankomunitateak Iruñerriko Ibai Parkean sar ditzan, eta bai lagatzearen baldintzak ere.

Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrek, 2017ko ekainaren 26an egindako saioan, hitzartu zuen “Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietatera atxikitzea, Uraren Ziklo Integraleko zerbitzuak emateko kudeaketa zuzeneko enpresa gisa, Barañaingo udal-barrutiko 1. poligonoko 121., 143. eta 156. udal-lursailen erabilera, Barañaingo Udalaren maiatzaren 25eko akordioaren eta Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariaren 200/2017 Ebazpenaren, maiatzaren 30ekoaren, arabera, eta 1997ko abenduaren 18an Mankomunitateko Batzar Nagusiak epe berbererako (2022ko abenduaren 31) egindako atxikitzearen baldintza berberetan”.

Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrek, 2018ko abenduaren 18an egindako saioan, hitzartu zuen, 2019ko urtarrilaren 1eko eraginarekin, “Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietatera atxikitzea, Uraren Ziklo Integraleko zerbitzuak emateko kudeaketa zuzeneko enpresa gisa, Uharteko udal-barrutiko 1. poligonoko 500., 579. eta 580. zenbakiko katastro-lursailen erabilera, Uharteko Udalaren 2018ko abuztuaren 29ko akordioaren eta Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariaren 602/2018 Ebazpenaren, abenduaren 12koaren, arabera, eta 1997ko abenduaren 18an Mankomunitateko Batzar Nagusiak epe berbererako (2022ko abenduaren 31) egindako atxikitzearen baldintza berberetan”. Uharteko Udalaren akordio horrek onartu zuen aipatutako lursail horiek Iruñerriko Mankomunitateari lagatzea, erakunde horrek Iruñerriko Ibai Parkean sar ditzan. Erabilera-lagatzearen iraupena 20 urtekoa izango da, eta urte horietan lursailek udal-titulartasunekoak izaten jarraituko dute.

Mankomunitateak aipatutako lursailen erabilera-eskubidearen titulartasuna du, eta, horrenbestez, eskubide horri berezkoak zaizkion guztiak dagozkio, legearen arabera.

Iruñerriko Mankomunitatearen eta Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietatearen arteko harremanen Erregelamenduko 7. artikulua arabera, IZSA sozietateari dagozkio eskubide eta betebeharrak hauek:

a) Atxikita dituen ondasunak haien izaeraren arabera erabiltzea.

b) Ondasun horiek amortizatzea.

c) Atxikitako ondasunak zaindu, ustiatu eta mantentzea, kargak edo zergak bere gain hartuta, dauden zortasunak.

d) Inbertsio berriak edo berriz jartzekoak egitea, arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik komenigarriak direnak, Sozietatearen ondareak, gutxienez, egungo eraginkortasun- eta kalitate-maileri eusteko zerbitzuetan.

e) Atxikitako ondasunak eta eskubideak atxikitzean jasotako helburu zehatzerako beharrezko izateari uzten diotenean, IZSAk Mankomunitateari jakinarazi beharko dio eta atxikitzea bertan behera geldituko da.

2020ko apirilaren 27an, Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrek hau hitzartu zuen: “Iruñerriko Zerbitzuak, SA sozietateari atxikitzea, Mankomunitatearen kudeaketa zuzenerako enpresa gisa, Iruñerriko Mankomunitatearen eta Iruñerriko Zerbitzuak, SA sozietatearen Harremanen Erregelamenduko 7. artikuluaekin bat eginez, Iruñeko San

Frantzisko kalearen 5.ean, 7.ean, 9.ean, 11.ean, 13.ean eta 15.ean dagoen eraikina (salestarren garai bateko komentua). Iruñeko 2. Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, 1.443 liburukian, 715. liburuan, 188. folioan, 32.910 finkan (865. lurzatia, 1. poligonoa, Iruñeko Katastroa). Mankomunitateko Batzar Nagusiak 1997ko abenduaren 18an egin zuen atxikitzearen baldintza berberetan egitea hitzartu zen, eta epe bererako (2022ko abenduaren 31). Atxikitako ondasunaren titulartasuna du Mankomunitateak, eta, horrenbestez, jabetza-eskubideari dagozkion eginkizunak dagozkio". 2010eko abenduaren 16an Mankomunitateko Batzar Nagusiak egin zuen saioan hartutako erabakiaren ondorioz eskuratu zen eraikin hau, erakundearen egoitza berria izateko helburuarekin, eta une horretan aurreikusi zen Sozietateari atxikitzea. Ondoren, Batzorde Iraunkorra hitzartzen joan da egoitza berria bertan ezartzeko beharrezkoak diren prozedurak hastea.

IMren Batzar Nagusiak 2022ko urriaren 20an egin zuen saioan hitzartu zuen hogeita bost urteko eperako luzatzea Iruñerriko Mankomunitatearen ondasunak Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietateari atxikitzea, lehenago hauen akordioz egindako atxikitzea: Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiaren akordioa, 1997ko abenduaren 18koa, eta Batzorde Iraunkorraren akordioak, 2009ko urriaren 20koa, 2014ko uztailaren 1ekoa, 2017ko ekainaren 27koa, 2018ko abenduaren 18koa, 2018ko urriaren 30ekoa eta 2020ko apirilaren 27koa. Denak, gehienez ere, 2047ko abenduaren 31n amaituko dira. Era berean, Iruñerriko Zerbitzuak SAK Mankomunitatearen titulartasuneko zerbitzuak ematek eratortzen diren diru-sarreraren titularra izaten jarraituko du; zerbitzu hauetatik eratortzen direnenak, hain zuzen: edateko urez hornitzea, estolderia, hondakin-uren saneamendua eta arazketa, eta hiri-hondakin solidoak bildu, tratatu eta aprobeztatzea, Iruñerriko Mankomunitatearen eta Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietatearen arteko harremanen araudiaren 2.3 artikulua jasotzen duenaren arabera.

Chinchilla Jeneralaren kaleko eraikina eta Julián Arteaga kaleko bulegoak esaten zaien higiezinak atxikitzeko epea IZSaren helbide soziala aldatzen zen une berean amaituko zen. IZSaren Administrazio Kontseiluak 2023ko irailaren 26an onartu zuen Iruñerriko Zerbitzuak SAKen helbide soziala aldatzea "Iruñeko Chinchilla Jeneralaren 7tik" "Iruñeko Aduanako Zokoa kalearen 12ra" aldatzea, 2024ko urtarrilaren 1eko eraginekin, eta, hortaz, Chinchilla Jeneralaren kaleko eraikina eta Julián Arteaga kaleko bulegoak ez dira beharrezkoak egindako atxikipenean jasotako xederako, eta automatikoki itzuli zaizkio Mankomunitateari.

Bere egoitza eta zerbitzu teknikoak jartzeko, Mankomunitateak behar duen zatia gordeko du beretzat, Iruñeko San Frantzisko kalean kokatutako eraikinean (salestarren garai bateko komentua). Behin obrak amaituta, Batzorde Iraunkorrak zehaztu eta erabakiko du.

2022ko urriaren 20an Batzar Nagusiak egindako saio berean, hitzartu zen Iruñerriko Zerbitzuak SA Iruñerriko Mankomunitatearen erakunde instrumental moduan deklaratzeko, Nafarroako Kontratu Publikoen 2/2018 Foru Legearen, apirilaren 13koaren, 8. artikuluan xedatuta dagoenaren eraginetarako.

2023ko apirilaren 27an Batzar Nagusiak egin zuen saioan, hitzartu zen Iruñerriko Mankomunitatearen Estatutuetako 6. artikulua aldatzea onartzea, atal berri bat gehituta: "8. Mugikortasuna". Akordio hori hilabete batean egon zen jendaurrean, erakundearen erkidetuta dauden udaletako idazkaritzetan, eta egokiak ziren iragarki-tauletan iragarkiak jarri ziren aurretik, herritarrek akordioa aztertzeko eta alegazioak, eragozpenak edo oharak adierazteko aukera edukitzeko.

Jendaurreko epe horretan ez zen inolako alegaziorik jaso estatutuen aldaketa-proposamenaren gainean, eta, beraz, Batzar Nagusiak 2023ko azaroaren 16an egin zuen saioan artikulua hori aldatzeko akordio berria hartu zuen, atal berria gehituta, "8. Mugikortasuna", eta txostena eskatu zitzaion Foru Komunitateko Administrazioari onartutako testuari buruz, behin jasota, Mankomunitatearen erkidetuta dauden udaletako osoko bilkurek estatutuak aldatze hori onartzea eskatzeko.

Abenduaren 19an, Tokiko Administrazio eta Despopulatzeko Zuzendaritza Nagusiak egindako txostena jaso zen. Bertan, hau ondorioztatu zen: "Azaldutakoari jarraikiz, ondorioztatu behar da zuzenbidearen arabera dela proposatutako estatutu-aldaketa, "8. Mugikortasuna" izeneko atala Iruñerriko Mankomunitatearen Estatutuetako 6. artikuluan sartzeari dagokionez, "Trafikoa, ibilgailuak aparkatzea eta mugikortasuna. Hiri-garraio kolektiboa" (Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2 artikulua, g) letra) udal-eskumena izatean, era erkidetuan emateko modukoa, eta Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legearen 50. artikuluan araututa dagoen legezko prozedura jarraitu denean.".

Onartutzat jotzeko udal nahikoek onetsi dute estatutuen aldaketa eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean kaleratzearen zain dago.

Batzar Nagusiaren saio horretan bertan behin betiko onartu zen Mankomunitatearen eta bere mendeko sozietatearen arteko harremanen araudia aldatzea (2023ko maiatzaren 16ko NAO, 102. zenbakikoa). Iruñerriko Zerbitzuak SAri agindu zitzaion, Mankomunitatearen bitarteko teknika den aldetik, Mankomunitatearen funtzionamendu zuzenerako beharrezkoak diren lan material guztiak, 4. artikuluan jasotzen direnak:

- a) IKT zerbitzu eta azpiegitura guztien kudeaketa egitea, Segurtasuneko Eskema Nazionalan ezarrita dagoen araudiari lotuta. Halaber, Mankomunitatearen datuen babeserako politika inplementatu eta kudeatuko du.
- b) Mankomunitatearen egoitza elektronikoaren eta Interneteko atarien mantentze-jarduera materialak eta teknikoak egitea.
- c) Mankomunitatearen artxiboa kudeatzea eta artxiboa kudeatzeko eta kontserbatzeko jarduera materialak egitea, Nafarroako Kultura Ondarearen 14/2005 Foru Legean eta hura garatzen duen araudian jasota dagoenaren arabera.
- d) Herritarren Arretako eta Erregistro Orokorreko eta espedienteen kudeatzaileko izaera materialeko jarduerak eta laguntzakoak egitea.
- e) Mankomunitateko langileen kudeaketa egitea, soldaten, Gizarte Segurantzaren, kontrol presentzialaren, Laneko Arriskuen Prebentzioaren eta lan-osasunaren gaietan, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura aritzen diren langileei aplikatzekoa zaien legeriaren arabera.
- f) Tokiko azpiegiturretako planetan aurreikusita dauden inbertsioak egitea, edo beste edozein motatakoak, Nafarroako Foru Komunitatekoak, Estatukoak edo Europar Batasunekoak, plan horiek oro har barne har ditzaketen obra- eta inbertsio-proiektuak idatzi, onartu eta gauzatzea, onartzen dituen araudiari zorrotz men eginez.
- g) Zerbitzuak emateko, zaintzeko eta ikuskatzeko beharrezkoak diren laguntza teknikoko jarduera material hauek egitea: gainbegiratzea eta kontrolatzea Eskualdeko Hiri Garraioaren gaian eta taxiaren zerbitzuarenean, zerbitzuak ikuskatzea eta zaintzea, aholkularitza, zerbitzuen antolaketa eta aldaketak Iruñerriko Mankomunitatearen Kuxari eta Altxortegiari laguntza-eginkizunak gauzatzea, eta garraioko zerbitzuak zuzen emateko beharrezkoak diren gainerako guztiak.
- h) Iruñerriko Mankomunitatearen Kuxari eta Altxortegiari laguntza-eginkizunak gauzatzea.
- i) Iruñerriko Zerbitzuak SAri dagokio aginduta dituen Zerbitzuak emateagatiko tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikoak onartu eta eguneratzeko proposamena aurkeztea. Proposamen hori indarrean dagoen legerian jasotako epeetan eta edukiarekin egin beharko da.
- j) Mankomunitateari egokituko zaio Iruñerriko Zerbitzuak SAren finantza-kontrola eta kontabilitatearen kontrola eta gainbegiratzea egitea.

Egokia denean, Mankomunitateak zehaztu eta erabakitzen dituen ildoen eta jarraibideen arabera gauzatuko dira jarduketak horiek guztiak.

2023ko maiatzaren 25eko Batzar Nagusiaren saioan hau hitzartu zen:

(...)

5.- Iruñerriko Zerbitzuak SAri agintzea izaera materialeko jarduerak egiteko, Ezkabako Eskualde Parkearen kudeaketa zuzenerako.

6.- Iruñerriko Zerbitzuak SAK zerbitzua zuzenean kudeatzera bideratutako espedientea abiaraztea, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen Legearen 85. artikulua arabera.

Orain arte ez da abiarazi Mendeko Sozietateak zerbitzua zuzenean kudeatzera bideratutako espedienterik.

Hemen ageri diren urteko kontu bateratuen barne daude Erakunde Menderatzaileak zuzenean edo zeharka kontrolatutako sozietateen finantzetako egoera-orriak, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31n. Erakunde Menderatzaileak kontrola du, baldin eta partaidetza izandako enpresen finantza- eta eragiketa-politikak ezartzeko ahalmena badu.

2022ko ekitaldi itxikoak izan ziren azken urteko kontu bateratuak, eta Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2023ko maiatzaren 25ean onetsi zituen.

1.2. Mendeko Sozietatea

Urtean zehar eskuratutako edo besterendutako sozietateen emaitzak emaitza bateratuaren barnean sartzen dira kontrola benetan hartzen den egunetik edo kontrola galtzen den unea arte, egokia denaren arabera.

Beharrezkoa denean, bertan sartutako sozietateetako batzuek erabilietatik desberdinak badira urteko kontu bateratu atxikiak prestatzean aplikatutako kontabilitatearen printzipioak eta balorazio-irizpideak, bateratze-prozesuan doitzeak sartzen dira eta beharrezkoak diren birsailkatzeak, azken horiek homogeneizatzeko eta matrizeak aplikatutako Kontabilitateko Plan Orokorrera egokitzeko.

Hau da mendeko sozietateen gaineko informazioa, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitakoarekin bat:

MENDEKO SOZietATEAK	Euroak				Balio garbia liburutetan	2022an jasotako dibidenduak	Partaidetza %	
	Harpidetutako kapitala	Jaulkipen-primak	Erreserbak	Ekitaldikoko emaitza			Zuzena	Zeharkakoa
Iruñerriko Zerbitzuak SA	1.202.000,00	27.768.094,58	60.390.414,05	1.259.149,23	28.970.118,79	0,00	100,00	0,00

Mendeko Sozietateak -Iruñerriko Zerbitzuak SA- 2023ko abenduaren 31n itxi zituen bere azkeneko urteko kontuak. Akziodun bakarrak onetsi zain daude kontu horiek. Sozietateko administratzaileek ez dute espero aldaketa garrantzitsuak izatea horietan onespén horren ondorioz.

2. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

a) Irudi zehatza

Mankomunitateko kontu-hartzaileak eta lehendakariak formulatu dituzte honekin batera dauden 2023ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak. 2023ko abenduaren 31n bukatu den urteko ekitaldiko urteko kontuak prestatu dira Erakunde Menderatzailearen eta Mendeko Sozietatearen kontabilitate-erregistroak oinarritu hartuta. Kontu hauek ondokoekin bat aurkezten dira: Kontabilitate Plan Orokorra, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartua, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena; irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuak xedatutako irizpideak, urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak onartzen dituenak; eta kontabilitateari buruz legez eta nahitaez bete behar diren xedapenak. Beraz, ondokoen irudi zehatza agertzen dute alderdi esanguratsu guztietan: ondasunak eta finantza-egoera bateratua 2023ko abenduaren 31n, eta horren eragiketen emaitza bateratua; eta eskudiru-fluxu bateratuak, dagokien ekitaldian izandakoak.

Batzarrak 2023ko urteko kontuak onartu gabe baditu ere, urteko kontu bateratuak formulatzearen arduradunen ustez, ez da aldaketa nabarmenik izango, onartze horren ondorioz.

b) Kontabilitate-printzipioak

Urteko kontu bateratu hauek egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipioak eta arauak laburtuta daude txosten honen 3. oharrean. Ondasunei, finantza-egoerari eta emaitzei eragiten dieten nahitaezko kontabilitate-oinarriak aplikatu dira urteko kontu bateratu hauek egiteko.

c) Balorazioaren alderdi kritikoak, ziurgabetasunaren zenbatespena eta iritzi nabarmenak kontabilitate-politikak aplikatzean

Mankomunitateko lehendakaria eta kontu-hartzailea dira urteko kontu hauek jasotzen duten informazioaren erantzuleak.

Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren pean egin ditu Taldeak 2023ko ekitaldiko urteko kontuak. Ez dago inolako arrisku garrantzitsurik, hurrengo ekitaldiko aktiboen eta pasiboen balioetan aldaketa esanguratsurik ekarriko duenik.

Transports Ciutat Comtal, S.A. sozietateak aurkeztutako helegitearen harira (joan den urteko txostenean aipatu zen) -Eskualdeko Hiri Garraioaren kontzesioaren oreka ekonomikoa berrezartzeko egindako eskaera ebatzi zuen 2021eko ekainaren 30eko Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiaren akordioaren aurkakoa zen-, Nafarroako Administrazio

Auzitegiak erabakia eman du, 2022ko urriaren 27ko 2281 ebazpenaren bidez. Hain zuzen, zati batean onartu du gora jotzeko helegite hori. Edonola ere, txosten hau egiten ari garenean ez da amaitu oraindik ebazpen hori betetzeko beharrezkoak diren egintzen eta akordioen izapidetzea. Kalkulatu da 229.362,45 euro izango dela enpresa emakidadunari ordaindu behareko zenbateko gehigarria. Hartara, 2022ko ekitaldiko gastu moduan eta 2023ko ekitaldian ordaindu moduan erregistratu da kopuru hori.

Honekin batera doazen urteko kontuetan, zenbaitetan, zenbatespenak erabili dira bertan erregistratuta dauden aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk kuantifikatzeko. Funtsean, zenbatespen horiek aktibo materialen eta ukiezinen bizitza baliagarriari dagozkio (3.3 eta 3.4 oharra), aktibatutako zerga-kredituak berreskuratu ahal izateari (3.12 oharra) eta Gongorako zabortegia eraisteko hornidurei (3.10 oharra). Urteko kontu hauek egiteko unean aztertutako gertakarien gainean eskuragarri zegoen informazio onena kontuan hartuta egin baziren ere zenbatespen horiek, gerta liteke etorkizunean zerbait gertatzea eta haiek aldatzera behartzea (gorantz edo beherantz) hurrengo ekitaldietan, eta hori modu prospektiboan egingo litzateke, zenbatespenaren aldaketaren eraginak aitortuta etorkizuneko galeren eta irabazien kontuetan.

d) Informazioa alderatzea

Alderatu ahal izateko, urteko kontu bateratuek aurreko ekitaldikoak ere aurkezten dituzte, balantzeko kontu-sailetak bakoitzarekin, galeren eta irabazien kontukoekin, ondasun garbien aldaketen egoera-orrikoekin, eskudiru-fluxuen egoera-orrikoekin batera, 2023ko ekitaldiko kopuruez gain. Halaber, 2023ko ekitaldiari dagokion txosten honetan dagoen informazioa, alderatzeko xedeetarako, 2022ko ekitaldiko informazioarekin batera aurkezten da.

Ez da aldaketarik egon bateratze-perimetroan 2023ko ekitaldian, aurreko urtearen aldean.

e) Kontu-sailak multzokatzea

Urteko kontu bateratuek ez dute balantze bateratuan, galeren eta irabazien kontu bateratuan, ondasun garbien aldaketen egoera-orri bateratuan edo eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratuan multzokatu den kontu-sail bakar bat ere.

f) Kontu-sail arrunten eta ez arrunten sailkapena

Kontu-sail arruntak sailkatzeko, urtebeteko epe maximoa hartu da kontuan, urteko kontu hauen datatik aurrera zenbatzen hasita.

g) Aldaketak kontabilitate-irizpideetan

2023ko ekitaldian ez da aldaketa esanguratsurik izan kontabilitateko irizpideetan, aurreko ekitaldian aplikatutako irizpideak aintzat hartuta.

h) Zenbait kontu-sailetan bildutako elementuak

Ez da aurkezten balantze bateratuko bi kontu-sailetan edo gehiagotan erregistratutako ondarezko elementurik.

i) Akatsak zuzentzea

2023ko ekitaldiko urteko kontu bateratuek ez dute barne hartzen ekitaldian detektatutako akatsen ondorioz egindako doitzarik.

j) Garrantzi erlatiboa

Finantza-egoeretako kontu-sail desberdinei edo beste alderdi batzuei buruz txosten honetan bereizi beharreko informazioa zehaztean, Erakunde Menderatzailea eta erakunde bateratuak, Kontabilitateko Plan Orokorren kontzeptu-esparruarekin bat eginda, aintzat hartu du garrantzi erlatiboa 2023ko ekitaldiko urteko kontu bateratuekin lotuta.

3. Erregistro- eta balorazio-arauak

Hauek izan dira 2023ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldirako bere urteko kontuak egitean taldeak erabili dituen erregistro- eta balorazio-arau nagusiak, Kontabilitateko Plan Orokorrean xedatutakoekin bat:

3.1) Homogeneizazioa

Aldi baterako homogeneizazioa.

Bateratzera behartuta dagoen sozietatearen urteko kontuen data eta aldi berean ezarri dira erantsitako urteko kontu bateratuak.

Taldeko sozietate guztiek beren ekitaldia ixten dute urteko kontu bateratuan data berean.

Balorazio-homogeneizazioa.

Aktiboaren eta pasiboaren elementuak, diru-sarrerak eta gastuak, eta taldeko sozietateen urteko kontuen gainerako kontu-sailak metodo uniforme jarraituta daude baloratuta, betiere araudi hauetan ezarritako printzipio- eta balorazio-arauekin bat: Merkataritza Kodea, Kapitaleko Sozietateen Legearen eta Kontabilitateko Plan Orokorraren testuategina, eta kasu honetan aplikagarria den gainerako legeria.

Aktibo edo pasiboaren elementuren bat, edo diru-sarrera edo gasturen bat, edo urteko kontuen beste kontu-sailen bat uniformeak ez diren irizpideen arabera baloratu bada bateratzean aplikatutakoekin alderatuta, elementu hori berriz baloratzen da eta soilik bateratzearen ondorioetarako. Orduan beharrezkoak diren egokitzapenak egiten dira. Salbuespena litzateke balorazio berriaren emaitzak garrantzi gutxiko interesa ez eskaintzea taldearen irudi zehatza lortze aldera.

Hala ere, taldeak zenbait jardura egiten baditu, eta horietako batzuk kontuei buruzko arau orokorraren (Kontabilitateko Plan Orokorra) arabera arautzen badira, eta beste batzuk Espainian finantza-sektoreko erakunde batzuei aplikatzen zaien arauaren arabera, edo subjektu kontablearen arrazoiarengatik, arau espezifikoak errespetatu beharko dira erabilitako irizpideak zehatz-mehatz azalduta; nolanahi ere, aukerak aurkezten dituzten irizpide horien beharrezko homogeneizazioa egin beharko da irudi zehatzaren helburuari begira. Hartara, eragiketak homogeneizatzeko orduan kontuan hartu beharko da taldearen baitan eragiketa horretarako garrantzi handiagoa duen sozietatearen banakako kontuetan aplikatutako irizpidea.

Araudi espezifikoak ez badu aukerarik ematen, erakundeak bere banakako kontuetan aplikatutako irizpideari jarraitu beharko zaio.

Homogeneizazioa barne-eragiketengatik.

Taldeko sozietateetako urteko kontuetan barneko eragiketetatik eratorritako kontu-sailak ez datozenean bat, edo erregistratzeko zain dagoen kontu-sailen bat dagoenean, egokiak diren doitzeak egiten dira, dagozkion ezabatzeak praktikatzeko.

Agregazioa egiteko homogeneizazioa.

Taldeko sozietate baten urteko kontuen egituraren beharrezkoak diren birsailkatzeak egiten dira, urteko kontu bateratuetakoarekin bat etortzeko.

3.2) Bateratze-perimetroaren barnean dauden sozietateen arteko eragiketak

Erakunde Menderatzailearen urteko kontuak eta Mendeko Sozietatearenak bateratu dira integrazio orokorraren metodoaren bidez, jarraian agertzen diren funtsezko oinarriekin bat:

- Mendeko Sozietatean izandako parte-hartzea ezabatu da aipatutako partaidetzari egozten ahal zaion berezko funtsen zati proportzionalaren bidez.
- Hauek kendu dira: 2023ko abenduaren 31ko saldoak eta bi sozietate bateratuen artean data horretan bukatutako ekitaldian egin diren transakzio garrantzitsuak.
- Halaber, 2023ko urtarrilaren 1ean gauzatutako atxikitzeen luzapenari dagozkion saldoak kendu egin dira.

3.3) Ibilgetu ukiezina

Administrazio-kontzesioak, Erakunde Menderatzailean sartzekoan toki-erakundeek egindako ekarpenetatik etorriak, integrazio-egintzan onartutako balioan aurkezten dira. Geroko kontzesioak, Erakunde Menderatzaileak zuzen lortuak, eskurapen-prezioan baloratuko dira, edo, bestela, behar den kontzesioa eskuratzeko egindako gastuen zenbateko

osoarengatik.

Horiek guztiek amortizatzeko prozesu lineal bati jarraitzen diote, kontzesio bakoitzerako hasiera batean zehaztutako kontzesio bizitzaren arabera, 1990eko urtarilaren 1etik aurrera sartutako kontzesioak izan ezik. Haiei 20 urteko gehieneko muga ezartzen zaie. Balorazioa murriztu ahalko lukete narriadurengatik izandako galerek, halakoak gertatuko balira.

Kontzesio-bizitzaren urteak eta atxikitako administrazio-kontzesioei ezarri zaien amortizazio-epea hauek dira:

	Hasierako kontzesio-bizitza	Amortizazio-epea
Artetako iturburua	30	29
Eugiko urtegia	40	28
Arakil ibaia	10	10
Julián Arteaga kaleko aparkalekuko plazak	50	20
Eugiko aprobetxamendu hidroelektrikoa	70	20
Urtasungo aprobetxamendu hidroelektrikoa	70	20

Urei buruzko 29/1985 Legearen, abuztuaren 2koaren, babesean formalizatu da kontzesio-bizitzak bukatzeko epe berria. Aipatutako arauarekin bat, 2061eko urtarilaren 1ean finkatu da horien bukaera, aurreko koadroan zehazten diren kontzesio guztietarako, Julián Arteaga kaleko aparkalekuei dagokiena izan ezik, ez baita sartzen lege horren esparruan. Kontzesioen bizitzak luzatzeak ez dio inolako aldaketarik ekarri kontzesioen balorazioari, ezta xedatutako amortizazio epeei ere.

"Beste ibilgetu ukiezin batzuk" epigrafea Erakunde Menderatzaileak 2014ko uztailaren 1ean (ikusi 1.1 oharra) egindako ondarezko ekarpenetatik dator eta Ibai Parkeari atxikitako ondasunen erabilera-eskubidearen balioa erakusten du.

Ibilgetu ukiezinaren gainerakoa aitortzen da, hasiera batean, erosketa-kostuarengatik, eta, geroago, bere kostuan baloratzen da, dagokion amortizazio metatuak (bere balio-bizitzaren arabera kalkulatu) eta narriatzeagatik gertatzen ahal zaizkion galerek murriztua. Aplikazio informatikoen amortizazioa linealki egiten da lauzpabost urteko aldian, aplikazio bakoitza ustiatzen hasten den unetik kontatzen hasita.

Taldeak kontabilitatean aitortzen du narriaduran jatorria duten aktibo horien balio erregistratuan gertatzen ahal den edozein galera, eta kontrapartida gisa erabiltzen da galeren eta irabazien kontuaren "Narriadura eta emaitza ibilgetuaren besterentzeengatik" epigrafea.

Narriadura dela-eta, ekitaldi honetan ez da aktibo ukiezin horietatik etorritako galera garbirik aitortu.

Erabilera-, ustiapen- edo salmenta-baldintzetan egoteko urte batetik gorako denbora behar duen ibilgetu ukiezinaren kostuan, Taldeak zuzenean eskuratzeari, eraikitzeari edo ekoizteari egozten ahal zaion berariazko finantzaketarekin edo generikoarekin lotutako finantza-gastuak sartzen ditu. Ekitaldian zehar ez da kontzeptu honengatik zenbatekorik aktibatu.

Konponketak ez dira bizitza baliagarria luzatzea eta mantentze-kostuak galeren eta irabazien kontuan kargatzen dira, gertatzen diren ekitaldian.

3.4) Ibilgetu materiala

Eskuratze-prezioan edo ekoizpen-kostuan balioesten da. Deskontu edo prezio-beherapen oro kendu ondoren fakturatutako zenbatekoaz gain, abian jarri arte sortzen diren gastu gehigarri guztiak eta zuzenean lotutakoak ere hartzen ditu barne, hala nola berdinketa- eta eraipen-gastuak, garraioa, aseguruak, instalazioa, muntaketa eta antzeko beste batzuk edo ekarpen-kostuan.

Erabilera-, ustiapen- edo salmenta-baldintzetan egoteko urtebete baino gehiago behar duen ibilgetu materialaren kostuan, erosketari, eraikuntzari edo ekoizpenari zuzenean egotz dakiokeen finantzaketa espezifikoarekin edo generikoarekin lotutako finantza-gastuak sartzen ditu Taldeak. Ibilgetu materialaren balioaren parte da, halaber, eraistearen edo erretiratzearen ondoriozko obligazioen eta aktiboari lotutako beste obligazio batzuen egungo balioaren hasierako

estimazioa, hala nola birgaitze-kostuena, obligazio horiek hornidurak erregistratzea dakartenean.

Ibilgetu materialaren balorazioa murriztuta dago dagokion amortizazio metatuarengatik eta izan dituen narriaduragatiko galerengatik.

Ibilgetu materialaren hasierako balorazioa aldarazi ahal izango dute eraiste- eta birgaitze-kostuei lotutako horniduraren zenbatekoa aldatzen duten kontabilitateko zenbatespenetan egin daitezkeen aldaketek.

Produktibitatea, ahalmena edo eraginkortasuna handitzea edo ondasunen balio-bizitza luzatzea ekartzen duten zabaltze-, modernizatzeko- edo hobetze-kostuak kapitalizatzen dira aipatutako ondasunen kostu handiago gisa.

Kontserbatze- eta mantentze-gastuak, ekitaldian eragindakoak, galeren eta irabazien kontuan sartzen dira, gertatzen diren unean.

Ibilgetu materialaren amortizazioak egiten dira metodo linealari jarraikiz. Aktiboen kostua ken beren hondar-balioa banatzen da kalkulatzeko den balio-bizitzaren urteetan, ondoko xehetasunen arabera:

	Zenbatetsitako balio-bizitzaren urteak
Eraikuntzak eta instalazio teknikoak	20-25
Makineria, tresneria, beste instalazio batzuk eta altzariak	7
Informazio-prozesuen ekipoak	2-4
Garraio-elementuak	5
Beste ibilgetu batzuk	7-10

Taldeak, gutxienez, ekitaldi bakoitzaren amaieran ebaluatzen du ibilgetu materialaren narriaduragatiko balio-galeren zantzurik dagoen, aktibo horien balio berreskuragarria liburu-etako balioaren zenbatekoa baino zenbateko txikiagoa murrizten duenik. Edozein zantzu badago, aktiboaren balio berreskuragarria zenbatesten da, balio-narriaduragatiko balizko galeren galeraren irismena zehazteko. Aktiboak beste aktibo edo aktibo multzo batzuekiko independenteak den diru-fluxurik sortzen ez badu, aktiboa dagoen unitate diru-sortzailearen (UDS) balio berreskuragarria kalkulatzeko du Taldeak.

Aktiboen balio berreskuragarria hauxe da: arrazoizko balioa ken salmenta-kostuaren eta erabilerako balioaren arteko balio handiena. Erabilerako balioa zehazteko, honako hauek hartzen dira kontuan: aktiboa erabiltzean etorkizunean espero diren diru-fluxuak, fluxuen zenbatekoan edo denbora-banaketan izan daitezkeen aldaketei buruzko itxaropenak, diruaren denbora-balioa, aktiboarekin lotutako ziurgabetasuna jasateagatik ordaindu beharreko prezioa eta merkatuko partaideek aktiboarekin lotutako etorkizuneko diru-fluxuen balorazioan kontuan hartuko lituzketen beste faktore batzuk.

Zenbateko berreskuragarri zenbatetsia aktiboaren kontabilitateko balio garbia baino txikiagoa bada, narriaduragatiko galera erregistratuko da galera eta irabazien kontuan zordunduta, eta aktiboaren kontabilitate-balioa zenbateko berreskuragarria murriztuko da.

Narriaduragatik egindako balio-zuzenketa edo itzulketak aitortu ondoren, hurrengo ekitaldietako amortizazioak kontabilitate-balio berriaren arabera doitu da.

Aurrekoa gorabehera, aktiboen inguruabar espezifikoek agerian uzten badute galera itzulezina dela, galera hori galera eta irabazien kontuko ibilgetutik datozen galeretan aitortzen da zuzenean.

2023ko ekitaldian, Taldeak ez du ibilgetu materialen narriadura-galerarik izan.

3.5) Ondasun higiezinak inbertsioak

Ondasun higiezinak inbertsio gisa sailkatzen dira aktibo ez-korrienteak edo arruntak, higiezinak direnak eta errentak, gainbalioak edo biak lortzeko dituenak, ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean edo horniduran erabili beharrean, edo helburu administratiboetarako edo eragiketen ohiko jardueran saldu beharrean. Halaber, Taldearen ondarean sartzeko unean zehaztu gabeko etorkizuneko erabilerak dituzten lursailak eta eraikinak.

Ondasun higiezinak inbertsioak baloratzeko, lursailak eta eraikuntzetarako ibilgetu materialaren irizpideak

erabiltzen dira, eta honako hauek dira:

- Eraiki gabeko orubeak eskuratze-prezioan balioesten dira, gehi egokitzapen-gastuak, hala nola itxiturak, lur-mugimenduak, saneamendu- eta drainatze-obrak, eraikuntzak eraisteko gastuak oin berriko obrak egiteko beharrezkoa denean, ikuskapen-gastuak eta planoak altxatzeko gastuak erosi aurretik egiten direnean, bai eta orubea birgaitzeko kostuetatik eratorritako egungo betebeharren egungo balioaren hasierako balioespena ere.
- Eraikuntzak eskuratze-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren arabera balioesten dira, iraunkortasun-izaera duten instalazioak eta elementuak barne, eraikuntzari datxekzior tasen eta proiektuaren eta obra-zuzendaritzaren ordainsari fakultatiboen arabera.

3.6) Errentamenduak

Taldeak finantza-errentamendu gisa erregistratzen ditu errentatzaileak kontratuaren xede den aktiboaren jabetzari datxekzior arriskuak eta etekinak errentariari funtsean transferitzea ekartzen duten eragiketak, gainerakoa errentamendu operatibo gisa erregistratuta.

Indarrean dagoen araudiak ezartzen du errentan hartutako ondasunen kostua egoera-balantzean kontabilizatuko dela, kontratuaren xede den ondasunaren izaeraren arabera, eta, aldi berean, pasibo bat zenbateko berebean. Zenbateko hori hau izango da: txikiena errentan hartutako ondasunaren arrazoizko balioaren eta errentamenduaren hasieran hitzartutako gutxieneko kopuruek une horretan duten balioaren artean, erosteko aukera barne hartuta, gauzatzeari buruz arrazoizko zalantzarik ez dagoenean. Ez dira kalkuluaren barnean sartuko kuota kontingenteak, zerbitzuen kostua eta errentatzaileak jasanarazitako zergak.

Eragiketa-mota honengatik erregistratutako aktiboak aktibo material guztiei aplikatutako antzeko irizpideekin amortizatzen dira, haien izaera aintzat hartuta.

Errentamendu operatiboko eragiketetan, errentan hartutako ondasunaren jabetzak eta funtsean ondasunari dagozkion arrisku eta abantaila guztiek errentatzailearengan jarraitzen dute.

Errentamendu operatiboko akordioetatik eratorritako diru-sarrerak eta gastuak galeren eta irabazien kontuan kontabilizatzen dira, sortzen diren ekitaldian.

Errentamendu operatibo bat kontratatzean egiten den edozein kobrantza edo ordainketa aurreratutako kobrantza edo ordainketa gisa tratatzen da, eta emaitzei egozten zaie errentamenduaren aldian zehar, alokatutako aktiboaren etekinak uzten edo jasotzen diren heinean.

3.7) Finantza-tresnak

Taldeak finantza-tresnen atalean erregistratuta ditu enpresa batean finantza-aktibo bat eta, aldi berean, beste enpresa batean finantza-pasibo bat edo ondare-tresna bat sortzen duten kontratuak. Beraz, arau hau honako finantza-tresna hauei aplikatuko zaie:

- Finantza-aktiboak:

- Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk;
- eragiketa komertzialengatiko kredituak: bezeroak eta hainbat zordun;
- beste batzuei emandako kredituak: hala nola emandako finantza-maileguak eta -kredituak, aktibo ez-korrienteen salmentatik sortutakoak barne;
- eskuratutako beste enpresa batzuen zorra adierazten duten baloreak: obligazioak, bonuak eta ordaindukoak;
- eskuratutako beste enpresa batzuen ondare-tresnak: akzioak, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak eta beste ondare-tresna batzuk;
- enpresaren aldeko balorazioa duten deribatuak: besteak beste, gerokoak edo eperako eragiketak, aukerak, finantza-trukeak eta eperako atzerri-monetaren salerosketa; eta
- beste finantza-aktibo batzuk: hala nola kreditu-erakundeetako gordailuak, langileentzako aurrerakinak eta kredituak, eratutako fidantzak eta gordailuak, kobratzeko dibidenduak eta ondare propioko tresnen gainean eskatutako ordainketak.

- Finantza-pasiboak:

- Merkataritza-eragiketengatiko zorrak: hornitzaileak eta hainbat hartzekodun;
- kreditu-erakundeekiko zorrak;
- jaulkitako obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak: bonuak eta ordaindukoak;
- enpresaren aurkako balioespena duten deribatuak: besteak beste, gerokoak edo eperako eragiketak, aukerak, finantza-trukeak eta eperako atzerri-monetaren salerosketa;
- ezaugarri bereziak dituzten zorrak; eta
- beste finantza-pasibo batzuk: beste batzuekiko zorrak, hala nola kreditu-erakunde ez diren pertsona edo enpresetatik jasotako finantza-maileguak eta -kredituak, aktibo ez-korrienteak erostean sortutakoak barne, jasotako fidantzak eta gordailuak, eta beste batzuek partaidetzen gainean eskatutako ordainketak.

- Ondare propioko tresnak: funts propioetan sartzen diren finantza-tresna guztiak, hala nola jaulkitako akzio arruntak edo kapital sozialeko partaidetzak.

3.7.1. Epe luzerako eta laburrerako finantza-inbertsioak

Kostu amortizatuko finantza-aktiboak. Finantza-aktibo bat kategoria honetan sartzen da, baita merkatu antolatu batean negoziatziora onartuta dagoenean ere, enpresak inbertsioari eusten badio kontratua gauzatzetik eratorritako eskudiru-fluxuak jasotzeko helburuarekin, eta finantza-aktiboaren kontratu-baldintzek eragiten badituzte, zehaztutako datetan, eskudiru-fluxuak, soil-soilik printzipalaren kobrantzak direnak eta pendiente dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak. Soil-soilik printzipalaren kobrantzak eta pendiente dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak diren kontratuzko eskudiru-fluxuak mailegu arruntaren izaera duen akordio bati datzekio, alde batera utzirik eragiketa zero interes-tasa edo merkaturakoaren azpitik hitzartzen bada. Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatiko kredituak (ondasunak saltzean eta zerbitzuak ematean sortzen diren finantza-aktiboak, enpresaren trafiko-eragiketengatik, kobrantza geroratuarekin), eta bai merkataritzakoak ez diren eragiketengatiko kredituak (ondare-tresnak eta deribatuak izan gabe, jatorri komertzialik ez duten finantza-aktiboak eta kobrantzak zenbateko jakin batekoak edo mugagarrikoak dituztenak, enpresak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik datozenak). Hau da, kategoria honen barnean kobratu beharreko kontuak eta maileguak egongo lirateke, eta bai zorraren balio adierazgarriak, mugaegun finkatua dutenak, zenbateko jakin edo mugagarriko kobrantzak, merkatu aktibo batean negoziatzen direnak eta Taldeak mugaeguna arte kontserbatzeko asmoa eta gaitasuna duenak.

- Hasierako balorazioa: hasiera batean beren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, zuzenean egoztekoak dituzten transakzio-kostuak gehituta. Edonola ere, urtebete baino gutxiagoko mugaeguna duten eta kontratuzko interes-tasa esplizitua ez duten merkataritza-eragiketengatiko kredituak, eta bai langileentzako kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnen gainean exijitutako ordainketak beren balio nominalaren arabera baloratu ahal izango dira, eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.
- Ondorengo balorazioa: kostu amortizatuan egiten da eta sorrarazitako interesak galeren eta irabazien kontuan kontabilizatzen dira, benetako interes-tasaren metodoa aplikatuta.

Hala ere, urtebete baino gutxiagoko mugaeguna duten kredituak, aurreko atalean xedatutakoaren arabera, hasiera batean beren balio nominalaren arabera baloratzen direnak, zenbateko horren arabera baloratzen jarraituko dira, baldin eta ez badira narriatu.

Jaulkitzailearen finantza-zailtasunen ondorioz aldatzen direnean finantza-aktibo baten kontratuzko eskudiru-fluxuak, enpresak aztertuko du egokia den galera bat kontabilizatzea balioa narriatzeagatik.

- Narriadura: Taldeak egokiak diren narriadurak erregistratzen ditu, kobratu beharreko kontuen berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta erregistratuta dauden liburuetaiko balioaren artean dagoen diferentziaren arabera.

Gutxienez ekitaldiaren itxieran, beharrezkoak diren balorazio-zuzenketak egiten dira baldin eta ebidentzia objektibo bat badago, kategoria honetan sartutako finantza-aktibo baten balioa, edo kolektiboki baloratutako arrisku-ezaugarri antzekoak dituzten finantza-aktibo batzuen multzoa, narriatu egin dela hasierako aitortpenaren ondoren gertatu den edo diren gorabehera baten edo batzuen emaitza moduan, eta etorkizunerako zenbatetsitako eskudiru-fluxuetan murrizketa edo atzerapena ekar dezaketenen emaitza moduan, zordunaren kaudimengabeziak eraginda etor daitezkeenak.

Finantza-aktibo horien balioa narriatzeagatik galera hauen arteko aldean da: liburuetan duten balioaren eta etorkizuneko eskudiru-fluxuen une horretako balioaren artekoa, egokia bada, barne hartuta benetako bermeak eta pertsonala gauzatzetik datozenak, sortuko dela zenbatesten direnak, hasieran aitortzeko unean kalkulaturako benetako interes-tasan deskontatuta.

Narriaduragatik balio-zuzenketak, eta bai ondorengo gorabehera batekin lotutako arrazoiengatik galera horren zenbatekoa gutxitzen bada egindako berrikuspenak ere, gastu edo diru-sarrera gisa aitortzen dira, hurrenez hurren, galeren eta irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga da balioaren narriadura erregistratu ez balitz itzulketaregunean aitortuta egongo litzatekeen aktiboaren liburuetako balioa.

Finantza-aktiboen birsailkapena

Taldeak aldatzen duenean bere finantza-aktiboak kudeatzeko duen modua eskudiru-fluxuak sortzeko, ukitutako aktibo guztiak birsailkatuko diru, arau honetako aurreko ataletan ezarritako irizpideekin bat eginez. Kategoría birsailkatzea ez da balantzeko baja baten kasua, baizik eta balorazio-irizpidean aldaketa bat egitea.

Birsailkapen hauek gerta daitezke:

- Kostu amortizatuko finantza-aktiboen birsailkapena arrazoizko balioko finantza-aktiboen kategoriara, galeren eta irabazien kontuan aldaketak izanda eta alderantziz.
- Kostu amortizatuko finantza-aktiboen birsailkapena arrazoizko balioko finantza-aktiboen kategoriara, ondasun garbieran aldaketak izanda eta alderantziz.
- Arrazoizko balioko finantza-aktiboen birsailkapena galeren eta irabazien kontuan aldaketak izanda, arrazoizko balioko finantza-aktiboen kategoriara ondasun garbieran aldaketak izanda eta alderantziz.
- Kostura baloratutako ondare-tresnetan egindako inbertsioen birsailkapena arrazoizko balioko finantza-aktiboen kategoriara galeretan eta irabazietan aldaketak izanda eta alderantziz.

Finantza-aktiboetatik jasotako interesak eta dibidenduak

Eskuratu ondoren sortutako finantza-aktiboen interesak eta dibidenduak sarrera gisa kontabilizatzen dira galeren eta irabazien kontuan. Kostu amortizatu baloratutako finantza-aktiboen interesak aitortzen dira benetako interes-tasaren metodoaren arabera, eta ondare-tresnetan egindako inbertsioetatik datozen dibidenduetako diru-sarrerak aitortzen dira Taldeak haiek jasotzeko eskubideak sortu direnean.

Finantza-aktiboen hasierako balioespenean, une horretan sortu baina mugaeguneratu ez diren interes esplizituen zenbatekoa modu independentean erregistratzen dira, epemugaren arabera, eta bai eskuratzeko unean organo eskudunak hitzartutako dibidenduen zenbatekoa ere.

Halaber, banatutako dibidenduak eskuratzeko eguna baino lehen sortutako emaitzetatik badatoz, zalantzarik gabe, eskuratu ondoren partaidetutakoak sortutako etekinak baino handiagoak diren zenbatekoak banatu direlako, ez dira aitortzen diru-sarrera gisa, eta inbertsioaren kontabilitate-balioa gutxitzen dute.

Partaidetutakoak etekinak sortu dituen edo ez erabakitzea egiten da soil-soilik eskuratzeko dataren ondoren galeren eta irabazien kontu indibidualean kontabilizatutako etekinak kontuan izanda, baldin eta zalantzarik gabe etekin horien konturako banaketa inbertsioaren berreskuratze gisa kalifikatu behar bada, dibidendua jasotzen duen erakundearen ikuspegitik.

Finantza-aktiboen baja

Taldeak baja ematen die finantza-aktiboari, dagokion finantza-aktiboari diru-fluxuen gaineko eskubideak amaitzen direnean edo laga direnean eta jabetzari datxekion arrisku eta mozkinak funtsean transferitu direnean. Kobratu beharreko kontuen kasuan, kaudimengabezia- eta berandutza-arriskuak transmititu badira, oro har, gertaera hori gertatzen dela ulertuko da.

Finantza-aktiboari baja ematen zaionean, transakzio-kostu garbietatik jasotako kontraprestazioaren eta aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko diferentziak, zuzenean ondare garbian kontabilizatutako zenbateko metatuak gehituta, aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera zehazten du, eta hori gertatzen den ekitaldiko emaitzaren parte

da.

Aitzitik, Taldeak ez die baja ematen finantza-aktiboei, eta finantza-pasibo bat aitortzen du, jasotako kontraprestazioaren zenbateko berekoa, bere jabetzari datxekzion arrisku eta onurak funtsean atxikitzen diren finantza-aktiboen lagapenetan.

3.7.2. Eskudirua eta beste baliabide aktibo likido baliokide batzuk

Honekin batera doan egoera-balantzeko epigrafe honetan, kutzako eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko hiru hilabetetik beherako epemuga duten epe laburreko beste inbertsio batzuk erregistratzen dira. Horiek berehala egin daitezke kutxan eta ez dute baliorik aldatzeko arriskurik.

3.7.3. Finantza-pasiboak

Kostu amortizatuko finantza-pasiboak. Kategoria honen barnean finantza-pasibo guztiak sailkatzen dira, galeren eta irabazien kontuan aldaketak eginda arrazoizko balioan baloratu behar direnean izan ezik. Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatiko zorrak eta merkataritzakoak ez diren eragiketengatiko zorrak.

Mailegu arrunt baten ezaugarriak dituzten partaidetza-maileguak ere kategoria honetan sartuko dira, alde batera utzirik eragiketa zero interes-tasa batean edo merkatutik behera hitzartzea.

- **Hasierako balorazioa:** hasiera batean beren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, kontrako ebidentzia badago izan ezik, transakzioaren prezioa dena. Hain zuzen, prezio hori honen baliokidea da: jasotako kontraprestazioaren arrazoizko prezioa, zuzenean egoztekoak dituen transakzio-kostuek doituak. Dena den, urtebetetik beherako mugaeguna duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketengatiko zorrak, eta partaidetzen gainean beste batzuek exijitutako ordainketak, zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero denak, beren balio nominalaren arabera baloratu ahal dira, eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.
- **Ondorengo balorazioa:** kostu amortizatuan egiten da. Sortutako interesak galeren eta irabazien kontuan kontabilizatzen dira, benetako interes-tasaren metodoa aplikatuta. Dena den, urtebetetik beherako mugaeguna duten zorrak, aurreko atalean xedatutakoaren arabera, hasiera batean beren balio nominalaren arabera baloratzen direnak, zenbateko horren arabera baloratzen jarraituko dira.

Finantza-pasiboen baja

Taldeak finantza-pasibo baten edo haren zati baten baja emango du betebeharra desagertu denean, hau da, ordaindu denean, baliogabetu denean edo iraungi denean.

Emandako eta jasotako fidantzak

Obligazio jakin batzuen berme gisa eratutako gordailuak edo fidantzak benetan ordaindutako zenbatekoan balioesten dira, eta zenbateko hori ez da arrazoizko balioaren oso desberdina.

Errentamendu operatiboengatik edo zerbitzuak emateagatik emandako edo jasotako fidantzetan, beren arrazoizko balioaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko diferentzia errentamenduarengatik edo zerbitzua emateagatik aurreratutako ordainketa edo kobrantzat hartzen da, eta galeren eta irabazien kontura egozten da errentamenduaren aldian edo zerbitzua ematen den aldian, salmentengatik edo zerbitzuak emateagatik diru-sarrerei buruzko arauaren arabera.

Fidantzen arrazoizko balioa zenbatestean, hondar-aldizat hartzen da konprometitutako kontratuzko gutxieneko epea, zeinetan ezin den zenbatekoa itzuli, aintzat hartu gabe itzulketaren estatistika-jokaera.

Fidantza epe laburrerakoa denean, ez da beharrezkoa eskudiru-fluxuen deskontua egitea, eragina ez bada esanguratsua.

Arrazoizko balioa

Arrazoizko balioa da aktibo baten salmentarengatik jasotzen den prezioa edo pasibo bat transferitu edo baliogabetzeko ordaintzen dena, balorazio-datan merkatuan parte hartzen dutenen arteko transakzio ordenatu baten bidez. Arrazoizko balioa erabakitzen da beste baliabide batzuk besterendu edo edukitzeko kausarengatik egin daitekeen transakzio kostuak

kendu gabe. Ez da arrazoizko baliotzat hartuko inola ere ezinbesteko transakzio baten, urgentziazko baten edo nahi gabeko likidazio-egoera baten ondorioa den baten emaitza dena.

Oro har, arrazoizko balioan balioetsitako finantza-tresnak balioestean, merkatuko balio fidagarri bati erreferentzia eginez kalkulatzen du Taldeak balio hori, eta arrazoizko balio horren erreferentziarik onena merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa da. Merkatu aktiborik ez duten tresnen kasuan, arrazoizko balioa balorazio-ereduak eta -teknikak aplikatuz lortzen da, hala badagokio.

Eragiketa komertzialengatik kredituen eta zorren kontabilitate-balioa arrazoizko baliora hurbiltzen dela onartzen da.

3.8) Izakinak

Eskuratze-prezioan edo ekoizpen-kostuan balioesten dira. Eskuratze-prezioa hornitzaileak fakturatutako zenbatekoa da, deskontuak eta zorren nominalari erantsitako interesak eta izakinak saltzeko dauden gastu gehigarriak kenduta: garraioak, muga-zergak, aseguruak eta eskurapenari egotz dakizkiokeen beste batzuk. Ekoizpen-kostuari dagokionez, izakinak baloratzen dira lehengaiak eta beste gai kontsumigarri batzuk eskuratzeko kostuari produktuari zuzenean egoztekoak diren kostuak gehituta eta produktuei zeharka egozteko kostuei arrazoiz dagokien zatia.

Taldeak batez besteko kostu haztatua erabiltzen du izakinei balioa esleitzeko.

Izakinak zergapetzen dituzten zeharkako zergak eskuratze-prezioan edo ekoizpen-kostuan sartzen dira soilik Ogasun Publikotik zuzenean berreskuratu ezin direnean.

Izakinen etorkizuneko horniduren kontura hornitzaileei emandako aurrerakinak kostuaren arabera baloratzen dira.

Zaharkitutako produktuen, produktu akastunen edo mugimendu moteleko produktuen balorazioa haien balizko errealizazio-baliora mugatzen da.

Izakinen balio bihurtarri garbia eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua baino txikiagoan denean, dagozkion balio-zuzenketak egingo dira, eta gastu gisa aintzatetsiko dira galeren eta irabazien kontuan.

Izakinen balioa zuzentzea eragin zuten inguruabarrak desagertzen badira, zuzenketaren zenbatekoa itzuli egingo da, eta diru-sarrerara gisa kontabilizatuko da galeren eta irabazien kontuan.

3.9) Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta ondareak

Jaso diren dirulaguntzak, dohaintzak eta ondareak erregistratzeko, ondoko irizpideak erabiltzen dira:

1) Itzuli behar ez diren kapitaleko dirulaguntzak, dohaintzak eta ondareak.

Hasiera batean ondasun garbiei zuzenean egotzitako diru-sarrerara gisa kontabilizatzen dira, eta galeren eta irabazien kontuan hartzen dira oinarri sistematiko eta arrazoizko baten gaineko diru-sarrerara gisa, dirulaguntza, dohaintza edo ondaretik eratorritako gastuekin korrelazioan jarrita, jarraian azaltzen diren irizpideekin bat:

- Ekitaldiko diru-sarrerara gisa egozten dira gutxieneko errentagarritasun bat ziurtatzeko edo ustiapen-defizitak orekatzeko.
- Geroko ekitaldien ustiapen-defizitak finantzatzera bideratzen badira, ekitaldi horien diru-sarreratzat jotzen dira.
- Gastu espezifikoak finantzatzeko ematen badira, diruz lagundutako gastuak sortzen diren heinean egiten da egozpena.
- Aktiboak edo izakinak hartzeko ematen badira, emaitzetan egozten dira amortizazioaren proportzioaren arabera edo, bestela, bere besterentzea egiten denean, narriatzeagatik balorazio-zuzenketa egiten denean edo balantzean baja ematen denean.
- Zorrak kitatzeko ematen badira, ezeztatze hori gertatzen den ekitaldiko diru-sarrerara gisa egozten dira; salbuespena litzateke finantzaketa espezifiko bati lotuta ematea, orduan egozpena diruz lagundutako elementuaren arabera egiten baita.
- Helburu espezifiko bati esleitu gabe dauden jasotako zenbateko monetarioak ekitaldiko diru-sarrerara gisa egozten dira.

Itzuli behar ez diren dirulaguntzen barnean, Taldeak bereizketa hau egiten du:

1. Kapitaleko dirulaguntzak:

Hasiera batean ondasun garbiei zuzenean egotzitako diru-sarrera gisa kontabilizatzen dira, eta galeren eta irabazien kontuan hartzen dira oinarri sistematiko eta arrazoizko baten gaineko diru-sarrera gisa, dirulaguntza, dohaintza edo ondaretik eratorritako gastuekin korrelazioan jarrita, jarraian azaltzen diren irizpideekin bat:

- Aktiboak edo izakinak hartzeko ematen badira emaitzetan egozten dira amortizazioaren proportzioaren arabera edo, bestela, bere besterentzea balorazio-zuzenketa narriatzeagatik edo balantzean baja izateagatik.
- Helburu espezifiko bati esleitu gabe dauden jasotako zenbateko monetarioak ekitaldiko diru-sarrera gisa egozten dira.

2. Ustiapenari eta funtzionamenduari emandako dirulaguntzak:

Emaitzetan abonatzen dira eman ondoren, Taldeak horretan xedatutako baldintzak bete direla jotzen den unean, eta, horregatik, kobratuko direla zentzuzko zalantzarik ez da. Emaitzei egozten zaizkie, eta aldi bakoitzean, kontabilitateari dagokionez, ziurtatzen da dirulaguntzatik etorritako sarreraren eta diruz lagundutako gastuen arteko korrelazio egokia.

3. Hondakin-uren saneamendua kudeatzeagatik jasotako dirulaguntzak:

Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduaren gaineko 10/1988 Foru Legeak, abenduaren 29koak, xedatzen du urez hornitzen duten erakundeek jasoko dutela saneamendu-kanona. Behar den epean, erakunde horiek emango diote kanona Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. (NILSA) enpresa publikoari, Saneamendu Plana kudeatzeko sortua baita. Horrekin bat, 1997ko abenduaren 31 arte Mankomunitateak, eta data horretatik aurrera, Sozietateak, NILSAri eman dizkiote saneamendu-kanon gisa bildutako kopuruak, bi aldi horietan erakunde hornitzailea izan baita. Kopuru horiek 1989ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako fakturazioari dagozkio. 2005eko abenduaren 21ean, Mankomunitateak hitzarmen bat sinatu zuen NILSArekin, eta, 2005eko urtarrilaren 1ean eraginak izanik, 1989ko urriaren 19ko hitzarmena ordezkatu zuen, 2004ko abenduaren 31 arte indarrean egon zena. Hitzarmen hori dela-eta, Mankomunitateak, Mendeko Sozietatearen bidez, bere lur-eremuan (ikusi 1. oharra) ematen jarraitzen du Hondakin Uren Saneamenduaren (sare nagusiko saneamendua) kudeaketa eta ustiapenari lotutako zerbitzuak. Hiru hilean behin dirulaguntza bat ematen dio NILSAk (ikusi 13.c oharra). Horren zenbatekoak konpentsatzen ditu sare nagusiko saneamendua ustiatzeak eragindako kostuak. Halaber, benetan izandako zuzeneko kostuek gehi aipatutako hitzarmenean zeharkako kostu gisa aurrez finkatzen den kopuru batek zehazten dituzten kostuak.

Ustiapen-kostuei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoa —kontzeptu berarengatik sortutako gastuen zenbateko bera da— emaitzetan abonatzen da sortzen den unean.

2) Itzultzekoak diren dirulaguntzak.

Taldearen pasibo gisa erregistratzen dira ez itzultzeko izaera hartzen duten arte.

Izaera monetarioko dirulaguntzak, dohaintzak eta ondareak onetsitako zenbatekoaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira. Izaera monetarioa ez dutenak edo espezie gisakoak jasotako ondasunaren arrazoizko balioagatik baloratzen dira, bi balioen aitortpenaren uneko erreferentzia hartuta.

3.10) Eraisteagatik hornidurak

Ekitaldiaren itxiera-datan, egiten den kalkulerik onenaren egungo balioan baloratzen dira eraisteko hornidurak, unean-unean eskura dagoen informazioarekin bat. Hornidura eguneratzeagatik izaten diren doitzeak finantza-gastu gisa erregistratuko dira, sortzen diren ahala.

“HHTZko hustuketa-gelak eraisteagatik hornidurak” izeneko atalak kalkulu bat jasotzen du, Gongorako zaborteia itxi ondoko zigilatze- eta mantentze-lanak egiteko dauden kostuen egungo balioarena. Hornidura hori kalkulatzeko, egungo ingurunean aplikatu beharreko ingurumen-mugak eta -betebeharrak sartu dira.

3.11) Pentsioetarako eta antzeko betebeharrarako hornidurak

Mendeko Sozietateak pentsio-plan mistoa du ezarrita langileekin, prestazio zehatzekoa kontingentzia estalietarako eta ekarpen zehaztutakoa Talderako, % 4an erabakitako ekarpen batekin pentsionagarria den lansarian. Bai erretiroko prestazioak, bai eta arriskuetaoak ere, pentsionagarria den lansariko urte-sari kopuru baten arabera zehazten dira. Erretiro-konpromisoarengatik egindako ekarpena dagokie Mendeko Sozietatean bi urte baino gehiagoko antzintasuna duten enpresako langileei. Arrisku-prestazioek langile guztiak estaltzen dituzte, kontratatuta egoteagatik. Aseguru-prima baten bidez antolatuta daude.

Pentsiodunentzat hitzartutako errebalorizazioa % 1,5ekoa da, eta pentsionagarria den soldataren bilakaera % 2koa da. Bi zifra horiek finkoak eta hitzarmenean berariaz hitzartuak dira.

Pentsioetarako konpromisoak kanpora ateratzeko nahitaezkotasunari dagokion indarreko araudiarekin bat, 1999ko ekitaldian Mendeko Sozietateak formalizatu zituen pentsioetan hartutako konpromisoak, arestian aipatuak, ondokoen bidez: pentsio-plan bat, eta kanpoko pentsio-funts individual baten harpidetza. Ildo horretatik, behar diren ekarpenak ordaintzeko hamar urteko epea du. 2000n Oreka berriz Lortzeko Plana egin zen. Hartaz, 2000ko ekainaren 30ean langile guztien "pasatutako eskubideei" zegozkien kopuruak traspasatu ziren funtsera. Data horretatik aurrera Pentsio Funtsak ("Mendillorriko ur-biltegia") bere gain hartu zuen onuradun guztiei dagozkien prestazioak ordaintzea. Halaber, berrorekatzeko beste plan bat egin zen 2001ean, indarreko legedira egokitzeko xedez. 2012an, konpromisoak aldatzeko akordio bat egin zen, eta egungo konpromisoak urte horretatik eratortzen dira.

Pentsio-plan hori, era berean, guztiz asegurata dago kanpoan, horretarako bi aseguru-poliza baitaude izenpetuta, 2023an izenpetuta, Vidacaixarekin eta SURNErekin, erretiroko eta arriskuetao prestazioak aseguratzeko, hurrenez hurren.

Sustatzaileak Iruñerriko Zerbitzuen eta Mendillorriko Ur Biltegiaren Pentsio Planera 2023an egindako ekarpena 523.604,32 eurokoa izan zen: 405.134,44 euro erretiroagatik eta 118.469,88 euro arriskuengatik.

Ezintasun iraunkorra aitortuta ez dagoen kasuetarako, eta ezintasuna aldi baterakoa bada, soldata osatzeko konpromisoa jasota dago Mendeko Sozietatearen hitzarmen kolektiboaren 70. artikuluan.

3.12) Etekinen gaineko zerga

Erakunde Menderatzaileak ez du sozietateen gaineko zergarik ordaindu behar. Hori dela-eta, Mendeko Sozietatea da aipatutako zergaren gaineko urteko aitorpena aurkezten duen bakarra.

Etekinen edo irabazien gaineko zerga zerga korriente edo arruntaren eta zerga geroratuaren gastua batuta zehazten da. Zerga korrientearen gastua irabazi fiskalari indarrean dagoen karga-tasa aplikatuta zehazten da, eta horrela lortutako emaitza ekitaldian aplikatutako hobari eta kenkari orokorren zenbatekoan gutxituta.

Zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak eta pasiboak etorkizunean ordaindu edo berreskuratu ahal izango direla aurreikusten diren eta aktiboen eta pasiboen kontabilitate-balioaren eta horien zerga-oinarriaren arteko diferentzietatik eratortzen diren denborazko diferentzietatik datoz. Zenbateko horiek erregistratzeko, berreskuratu edo likidatzea espero den karga-tasa aplikatzen zaio denbora-diferentziari.

Zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak, halaber, konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboen eta sortutako eta aplikatu gabeko zerga-kenkariaren ondoriozko kredituen ondorioz sortzen dira.

Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboa aitortzen da denborazko diferentzia zergagarri guztietarako, salbu eta denborazko diferentzia merkataritza-funts baten hasierako aitorpenetik edo eragiketa batean beste aktibo eta pasibo batzuen negozio-konbinazio bat ez den transakzio baten hasierako aitorpenetik eratortzen bada, eta eragiketa egiten den unean zerga- eta kontabilitate-emaizari eragiten ez badio.

Bestalde, zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak, denborazko diferentzia kengarriekin identifikatuak, Sozietateak etorkizunean horiek ordaintzeko adina zerga-irabazi izango dituela uste denean soilik aitortzen dira, eta negozio-konbinazioa ez den eta emaitza fiskalari eta kontabilitate-emaizari eragiten ez dion eragiketa batean beste aktibo eta pasibo bazuen hasierako aitorpenetik ez badatoz. Zerga geroratuaren ondoriozko gainerako aktiboak (zerga-oinarri negatiboak eta konpentsatzeko dauden kenkariak) Sozietateak etorkizunean horiek gauzatu ahal izateko behar adina

irabazi fiskal izango dituela uste denean soilik aitortzen dira.

Kontabilitate-itxiera bakoitzean, erregistratutako zerga geroratuak (aktiboak eta pasiboak) berrikusten dira, indarrean jarraitzen dutela egiaztatzeko, eta dagozkien zuzenketak egiten zaizkie, egindako analisien emaitzen arabera.

Zerga geroratuaren gastua edo sarrera bat dator zerga geroratuaren pasiboak eta aktiboak aintzatestearekin eta kitatzearekin, bai eta, hala badagokio, zuzenean ondare garbira egotzitako diru-sarrerak aintzatestearekin eta galera eta irabazien kontura egoztearekin ere, baldin eta sarrera horiek dirulaguntzaren izaera ekonomikoa duten kenkari eta bestelako abantaila fiskalak kontabilizatzetik erator badaitezke.

2022ko ekitaldirako sozietateen gaineko zerga Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen arabera likidatu da, jarraian jasotako aldaketak kontuan hartuta.

3.13) Euroa ez den moneta batean egindako transakzioak

Atzerriko monetan egindako eragiketak Taldearen moneta funtzionalean (euroa) erregistratzen dira, transakzioa egin den unean indarrean dauden kanbio-tasetan. Ekitaldian zehar, kontabilizatutako kanbio-tasaren eta ordainketaren edo kobrantzaren egunean indarrean dagoenaren artean dauden aldeak finantza-emaitza gisa erregistratzen dira emaitzen kontuan. Taldeak ez du moneta funtzionala, euroa, aldatu ekitaldian zehar.

Halaber, urte bakoitzaren abenduaren 31n, itxierako kanbio-tasaren arabera atzerriko monetan jatorria duten kobratu edo ordaindu beharreko saldoak itzultzen dira. Gertatutako balorazio-diferentziak finantza-emaitza gisa erregistratzen dira emaitzen kontuan.

3.14) Kalte-ordainak, kaleratzeengatik

Indarrean dagoen lan-araudiari jarraikiz, Taldeak kalte-ordainak ordaindu behar dizkie nahitaez hainbat baldintzatan lan-harremanak eteten dizkien langileei. Ez da ohiz kanpoko kaleratzerik aurreikusten. Beraz, kontzeptu honengatik ez da hornidurarik egin erantsita dauden urteko kontuetan.

3.15) Diru-sarrerak eta gastuak

Alderdi komunak

Bere jardueraren garapen arruntarengatik diru-sarrerak bezeroekin konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen kontrol-transferentzia gertatzen denean aitortzen ditu Taldeak. Une horretan, Taldeak baloratuko du diru-sarrera ondasun edo zerbitzu horien truke eskubide izatea espero duen kontraprestazioa islatzen duen zenbatekoaren arabera.

Ez da aitortzen diru-sarrerarik elementu homogeneoen trukeetan, adibidez, produktu amaituen trukeetan, edo bi enpresaren artean trukagarriak diren salgaietan, dagozkien bezeroei produktua emateko merkataritza-lanean eraginkorrakoak izateko helburuarekin.

Aitortzea

Taldeak kontratu batetik eratorritako diru-sarrerak aitortzen ditu konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen (hau da, bete beharreko betebeharrak) gaineko kontrola bezeroari transferitzen zaionean (edo transferitzen doan neurrian).

Ondasun edo zerbitzu baten (aktibo bat) kontrolak aipamena egiten dio ondare-elementu horren erabilerari buruz osorik erabakitzeko eta gainerako etekin guztiak funtsean lortzeko gaitasunari. Kontrolak barne hartzen du beste erakunde batzuek aktiboaren erabilerari buruz erabakitzea eta etekinak lortzea eragozteko gaitasuna.

Identifikatzen den bete beharreko betebeharrak bakoitzerako (ondasunak ematea edo zerbitzuak ematea), Taldeak zehazten du kontratuaren hasieran bere gain hartutako konpromisoa beteko den denboran zehar edo une jakin batean.

Konpromisoetatik eratorritako diru-sarrerak (oro har, zerbitzuak ematek edo ondasunak saltzetik), denboran zehar betetzen direnenak, kontratuzko betebeharrak osorik betetzerantz doan aurrerabidearen edo aurreratze-mailaren arabera aitortzen dira, baldin eta Taldeak informazio fidagarria badu aurreratze-mailaren neurketa egiteko.

Taldeak berrikusi egiten ditu, eta, beharrezkoa bada, aldatu egiten ditu aitortu beharreko diru-sarreraren zenbatespenak,

bere gain hartutako konpromisoa betetzen doan neurrian. Berrikuspen horiek beharrezkoak izateak ez du adierazten nahitaez eragiketaren amaiera edo emaitza ezin zenbatetsi ahal izatea fidagarritasunez.

Data jakin batean, betebeharraren betetze-maila arrazoiz neurtzeko gai ez denean Taldea (adibidez, kontratu baten lehen etapetan), nahiz eta konpromiso horri erantzuteko egindako kostuak berreskuratzea espero duen, soil-soilik aitortzen dira diru-sarrerak eta dagokion kontraprestazioa, egun horretaraino egindako kostuen balioidea den zenbateko batean.

Une jakin batean betetzen diren kontratuzko betebeharraren kasuan, gauzatzetik eratorritako diru-sarrerak egun horretan aitortzen dira. Egoera hori gertatu arte, produktua (ondasunak edo zerbitzuak) ekoiztean edo egitean egindako kostuak izakin moduan kontabilizatzen dira.

Zerbitzuak saldu edo emateagatik diru-sarrera moduan aurretik aitortutako kreditu-eskubidea kobratzeko zalantzak badaude, narriaduragatik galera narriaduragatik balio-zuzenketako gastu moduan erregistratuko da eta ez diru-sarrera txikiago gisa.

Balorazioa

Ondasunak saltzetik eta zerbitzuak ematek datozen diru-sarrera arruntak diru-zenbatekoaren arabera baloratzen dira, edo, egokia bada, jasotako edo jasotzea espero den eta hartatik eratorria den kontrakontuaren arrazoizko balioaren arabera, kontrako ebidentzia bada izan ezik, bezeroari transferitu beharreko aktiboetarako hitzartutako prezioa dena, hauek kenduta: edozein deskonturen zenbatekoa, prezioan egindako beherapen batena edo antzeko partidak, Taldeak eman ditzakeenak, eta bai kredituen nominalari sartutako interesak ere. Edonola ere, sartu ahal izango dira urtebetetik beherako mugaeguna duten merkataritza-kredituen barnean sartutako interesak, kontratuzko interes-tasarik ez dutenak, eskudiru-fluxuak eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Taldeak beste batzuei jasanarazi behar dizkien ondasunak emateagatik eta zerbitzuak emateagatik eragiketak zergapetzen dituzten zergak ez dira diru-sarreraren zati, adibidez, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga berezia, ez eta beste batzuen kontura jasotako kopuruak.

Diru-sarreraren balorazioan, Taldeak aintzat hartzen du kontraprestazio aldakorraren zenbatespen onena, oso litekeena bada ez gertatzea aitortutako diru-sarreraren zenbatekoaren itzulketa esanguratsua, kontraprestazio horri lotutako ziurgabetasuna ebazten denean gero.

Arau orokorraren salbuespen gisa, lizentziak lagatzeko akordioekin lotutako kontraprestazio aldakorra, salmentetan parte hartzearen edo aktibo horiek erabiltzearen moduan, soil-soilik aitortzen da gertaera hauen ondoren gertatzen denean (edo gertatzen doan heinean):

- a) Salmenta edo ondorengo erabilera gertatzen da; edo
- b) kontratua betez Taldeak bere gain hartzen duen eta kontraprestazio aldakor osoa edo zati bat esleitu dion betebeharra bete da (edo zati batean bete da).

Taldeak gauzatzen dituen zerbitzu nagusiak hauek dira:

Ura saltzea eta araztea.

Oro har, kontzeptu honengatik jasotako diru-sarrerak zehazteko oinarri gisa kontagailuen irazketaren irizpidea erabiltzen da. 2,5 m³/ordu-tik gorako emari nominala duten kontagailuak hileroko fakturatzen dira, eta, gainerakoak, lau hilabetetik behin, bezeroen populazioa taldeka banakaturik.

Ekitaldi bakoitza ixten denean diru-sarreraren hornikuntza bat aurreikusten du Sozietateak. Kalkulua egiteko, ondoko eragiketa hartzen da oinarri: egunero kontsumitzen diren ur metro kuboen kopurua bider metro kuboen batez besteko prezioa. Halaber, kontuan hartzen da zenbat egun iragan diren azken fakturaziotik, ondoko epigrafean erregistraturik: "Bezeroak, salmentak eta zerbitzuak emateagatik" (ikusi 8. oharra).

Hiri-hondakinak kudeatzea.

Hiri-hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzua emateak sortzen dituen diru-sarrerak horrela zehazten dira: alde batetik, hondakin-ekoizle handienentzat edukiontzien kopurua oinarri harturik, eta, bestalde, gainerakoentzat ondasun higiezinaren katastro-balioen batura, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren zerga-erregistroan araututakoarekin bat.

Eskualdeko Hiri Garraioa.

Iruñerriaren eremuan bidaiarien garraio publikoaren zerbitzua kudeatzean Mankomunitateak izaten dituen gastuen finantzaketa-iturri nagusia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta zerbitzu horren esparruaren barnean dauden udalek egin behar dituzten ekarpenek eratzen dute. Ekarpene horiek dagokien Hiri Garraioko Planeari zehazten dira (Iruñerriko Bidaiarien Garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legearen 8. artikulua), eta erakundeak ekarpen horien galdagarritasunaren irizpidea erabiltzen du diru-sarreraren sortzapena zehazteko, hartara, haien egozpena ekitaldi bakoitzean bat dator benetan likidatutako ekarpenekin, une bakoitzean indarrean dagoen Garraio Planeari dagokion anualitatearen babesean. Dagokien garraio-planetan ezarritako ekarpen horien zenbatekoak zerbitzuaren ustiapenaren defizitean oinarrituta zehaztu eta doitzen dira. Hala ere, ondoz ondoko planetan jasota dagoen zerbitzuaren ustiapenaren defizitaren kalkulua gastuen aurrekontu-sortzapenaren irizpideak aintzat hartuta egiten da, betebeharraren aitortze formalarena dena, eta horrek berekin ekartzen ditu denbora-diferentziak, esanguratsuak izatera irits daitezkeenak ekarpenengatiko diru-sarreraren kontabilitate-sortzapenaren eta finantzatu behar dituzten gastuen artean.

3.16) Ingurumen-izaera duten ondasun-elementuak

Ingurumen-gastu gisa hartzen dira aipatutako jarduerak egiteagatik sortutako zenbatekoak, Taldearen jarduerak ingurumenari eragindako kaltea arintzekoak, baita horren ingurumen-konpromisoetatik eratorriak ere. Gertatzen bada, beren zenbatekoa sartzen da galera eta irabazien kontuko epigrafe honetan: "Beste ustiapen-gastu batzuk".

Taldearen jardueran iraunkorki erabiliak izan daitezzen, horren ondasunetan sartzen diren elementuak —baldin eta beren xede nagusia ingurumen-inpaktua gutxitzea eta ingurumena babestea eta hobetzea bada— egoera balantzeko "Ibilgetu material" gisa erregistratzen dira, beren erosketa-prezioan edo ekoizpen-kostuan, egokia den bezala. Horien amortizazioa egiten da kostu-balioen gainean, metodo linealari jarraikiz kalkulaturako balio-bizitzaren aldien barnean (3.4. oharrean zehazten dira).

4. Ibilgetu materiala

Taula honetan daude ibilgetu materialean eta bere amortizazio metatuetan 2022ko eta 2023ko ekitaldietan izandako kontuen xehetasunak eta mugimenduak:

	Saldoa				Saldoa					Saldoa
	2021/12/31	Gehitzeak	Ateratzeak	Traspasoak	2022/12/31	Gehitzeak	Ateratzeak	Traspasoak	Doitzeak	2023/12/31
BALIO GORDINA										
Lursailak eta eraikuntzak	120.090.409,27		40.166,71	151.444,23	120.201.686,79		67.925,92	13.234.485,14		133.368.246,01
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu batzuk	325.581.336,26	4.933.012,17	9.900.773,22	1.401.380,78	322.014.955,99	6.882.911,16	1.485.778,90	19.697.559,35	-0,42	347.109.647,18
Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak	7.487.954,99	19.066.240,81	2.237,50	-1.552.825,01	24.999.133,29	16.580.967,52		-32.932.044,49		8.648.056,32
BALIO GORDINA, GUZTIRA	453.159.700,52	23.999.252,98	9.943.177,43		467.215.776,07	23.463.878,68	1.553.704,82		-0,42	489.125.949,51
AMORT. METATUA										
Eraikuntzen amort.	84.096.188,16	2.406.623,52			86.502.811,68	1.963.342,63	67.925,92		0,02	88.398.228,41
Instalazio teknikoen eta beste ibilgetu	250.866.246,85	10.817.757,41	9.820.568,17		251.863.436,09	11.401.776,16	1.438.788,93		-0,07	261.826.423,25

batzuen amort.										
AMORT. METATUA, GUZTIRA	334.962.435,01	13.224.380,93	9.820.568,17		338.366.247,77	13.365.118,79	1.506.714,85		-0,05	350.224.651,66
BALIO GARBIA	118.197.265,51	10.774.872,05	122.609,26		128.849.528,30	10.098.759,89	46.989,97		-0,37	138.901.297,85

2024ko urtarilaren 1ean, helbide soziala aldatzean, Chinchilla Jeneralaren kaleko eraikina eta Julián Arteaga kaleko bulegoak izeneko higiezinak egindako atxikipenerako beharrezkoak izateari utzi diote, eta automatikoki itzuli dira Mankomunitatera.

2023ko ekitaldian ibilgetu materialaren elementuak besterendu ziren, 0,00 euroko kontabilitateko balio garbia zutenak (0,00 euro 2022ko ekitaldia ixtean); hartara, 599,16 euroko etekina lortu zen salmenta horren ondorioz (72.450,00 euroko etekina izan zen 2022an).

Hau da edukitako higiezinaren kontabilitate-balio garbia, eraikuntzena eta lursailena berezita:

	Saldoa, 2023/12/31n	Saldoan 2022/12/31n
Lursailak	16.023.549,06	16.023.549,06
Eraikuntzak	28.946.468,56	17.675.326,05
	44.970.017,62	33.698.875,11

2023ko ekitaldian, ez da balorazio berririk egin Gongorako zabortegiarekin lotutako desegite/zaharberritze/kentzeko kostuen gainean (11. oharra).

"Bidean dagoen ibilgetua" instalazio konplexu espezializatuei dagokie ia osorik. 2022ko eta 2023ko abenduaren 31n saldo hau osatzen zuten kontzeptu nagusiak hauek ziren:

	2023	2022
IM-IZSaren egoitza berria		15.161.201,05
AM273251 Garraioaren Hiriko hornidura	3.106.338,94	2.145.103,21
SM286983 HUAko digestore berria		1.123.094,88
RM282354 Milagrosako sareak		916.022,50
SM286979 Elkartea, Ballariaingo sareak		891.876,00
RM282357 Elkanoko sareak		759.006,54
AM273256 Goñiko hornidura		757.874,32
SM287044 Ziritza, Etxarriko arazketa	1.306.449,8	634.081,20
RU282093 Ingurumen-zentroa	2.304.424,11	604.930,19
AM273238 Urtasungo EUTEko erreaktiboen gela	689.942,69	
GR000031 Klimatizazioa Agustindarren industrialdeko SIMZen	298.834,04	
PF000011 Ibai Parkea		521.420,08
Ibilgailuak muntaketan		480.000,00
RM282368 Bideberri kaleko sareak		325.270,12
RM282366 Camino El Soto kaleko sareak		225.184,09
Martxan dauden beste lan batzuk, zenbateko txikiagoak	942.066,66	454.069,11
Egiten ari diren lanak, guztira		24.999.133,29

Beste alde batetik, hauek izan ziren 2022ko eta 2023ko ekitaldietan izan ziren gehitzerik esanguratsuenak:

	2023	2022
AM280000 IMren egoitza berria (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	5.310.208,73	10.044.991,17
SM286961 Campanas Tiebas saneamendua (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	1.986.417,72	
AM273251 Garraioaren Hiriko hornidura (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	961.235,73	2.049.448,69
ECAS sarraillak (Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material bat)	784.104,00	1.911.504,00

Edukiontzia (Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material bat)	1.871.000,00	1.366.225,00
SM286983 Digestore berria HUAn (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	904.607,29	1.047.167,81
SM286979 Elkarte, Ballariaingo saneamendua (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	872.965,93	838.565,50
RM282354 Milagrosako sareak (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		776.598,39
AM273256 Hornidura (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		731.891,94
SM287044 Ziritza, Etxarriko arazketa (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		614.588,16
HHko ibilgailuak (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		480.000,00
Ibilgailuak (Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material bat)	2.190.191,58	
Kontagailuak (Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material bat)		408.136,48
PF000011 Ibai Parkea (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	967.033,26	348.980,76
AM273238 Urtasungo EUTEko errektiboen gela (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	672.433,30	
RM282368 Bideberri kaleko sareak (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		325.270,12
RM282357 Elkanoko sareak (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		254.517,94
Egillorko laborategiko tresnak (Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material bat)		246.306,61
RM282366 Camino El Soto kaleko sareak (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		225.184,09
RU282093 Ingurumen-zentroa (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	1.699.493,92	204.957,86
AM273274 Egillor-Etxauriko ur-biltegiko ponpaketa	451.464,42	
00000224 Edukiontzia (Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material bat)	439.600,00	
2022ASU0014 CPD sarea Salestarretan (Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material bat)	366.866,33	
GR000031 Klimatizazioa Agustindarren industrialdeko SIMZen (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	294.534,04	
AM273272 Usiko hornidura (Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	249.031,42	
2021ASU0013 Kromatografoa (Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material bat)	220.596,02	
Beste gehitze batzuk, zenbateko txikiagokoak	4.221.800,74	2.124.918,46
Gehitzeak, guztira	24.463.584,43	23.999.252,98

Hiri Hondakinen Bilketa Pneumatikoko Sistema instalatzearekin lotuta, Iruñeko Udalaren Tokiko Gobernu Batzordearen bi ebazpen daude eta horien bidez hitzartuta dago Iruñerriko Mankomunitateari bi lursailen erabilera lagatzea (UI VII.eko TP-3 "Trinitarios" eta 5. poligonoko 2.529. zenbakikoa, katastroan). Hain zuzen, erabilera eskusiboa da Alde Zaharreko eta Lezkairuko Zalduko eta Mutiloarteko sektoreetako hiri-hondakinen bilketa pneumatikoko zerbitzurako harrera zentroa hartzea, hurrenez hurren. Uharteko Udalaren beste erabaki baten bidez, hitzartuta dago Uharteko udal barrutiko 1. poligonoko 105. lursaileko erabilera lagatzea. Aipatutako lagatzeetan, uztearen hartzailearen jakinaren gainen jarrita dago lagatzea eraginik gabe geldituko dela –eta horrenbestez lagatzaileak lursailaren gaineko jabetza osoa berreskuratuko duela– behin Mankomunitateak ez duenean erabiltzen lagatzeko hitzarmena eragin duen erabilerarako. Lagatzea doakoa denez eta aipatutako hitzarmena eragin duen erabilerarako erabiltzen ez den unean udaletara itzuliko denez, erabaki da Balantzean ez jasotzea.

Taldearen politika da aseguru-polizak formalizatzea, bere ibilgetu materialen elementuek izaten ahal dituzten arriskuak estaltzeko. Aipatutako arriskuen estalduran ez dago defizitrik.

Ibilgetu materialarekin lotutako dirulaguntzak, dohaintzak eta ondareak 250.477.884,35 eurotan kuantifikatuta daude (10. oharra), eta diruz lagundutako aktiboen zenbatekoa 338.348.850,78 euro da.

2022ko eta 2023ko abenduaren 31n, erabat amortizatu ziren elementuak eta erabiltzen ari zirenak, guztira, zenbateko hauetakoak ziren:

	2023/12/31	2022/12/31
Lursailak eta eraikuntzak	68.987.701,87	66.072.956,63
Beste ibilgetu material bat	172.663.493,27	165.228.137,61
Guztira	241.651.195,14	231.301.094,24

5. Ibilgetu ukiezina

2022ko eta 2023ko ekitaldietan, ibilgetu ukiezinaren kontuetan eta zegozkien amortizazioetan izandako xehetasunak eta

mugimenduak hauek izan ziren:

	Saldoa			Saldoa					Saldoa
	2021/12/31	Gehitzeak	Traspasoak	2022/12/31	Gehitzeak	Bajak	Traspasoak	Doitzeak	2023/12/31
BALIO GORDINA									
Kontzesioak	3.819.279,43			3.819.279,43					3.819.279,43
Aplikazio informatikoak	6.210.722,41	193.431,53	217.432,14	6.621.586,08		776.470,64	1.544.158,15		7.389.273,59
Bidean dauden aplikazio informatikoak	419.533,18	405.124,64	-217.432,14	607.225,68	1.005.383,89		-1.544.158,15		68.451,42
Beste ibilgetu ukiezin bat	10.936.620,46			10.936.620,46					10.936.620,46
BALIO GORDINA, GUZTIRA	21.386.155,48	598.556,17		21.984.711,65	598.556,17				22.213.624,90
AMORT. METATUA									
Kontzesioen amortizazioa	3.819.279,43			3.819.279,43					3.819.279,43
Aplikazio informatikoen amortizazioa	5.472.449,99	322.336,32		5.794.786,31	434.850,62	751.598,31			5.478.038,62
Beste ibilgetu ukiezin baten amortizazioa	1.041.203,58			1.041.203,58				0,01	1.041.203,59
AMORT. METATUA, GUZTIRA	10.332.933,00	322.336,32		10.655.269,32	434.850,62	751.598,31		0,01	10.338.521,64
BALIO GARBIA	11.053.222,48	276.219,85		11.329.442,33	570.533,27	24.872,33		-0,01	11.875.103,26

"Aplikazio informatikoak" eta "Bidean dauden aplikazio informatikoak" izeneko gehitzeetan 2022ko eta 2023ko ekitaldietan erregistratu ziren mugimenduak aplikazio informatikoak garatzeari dagozkio. "Beste ibilgetu ukiezin bat" epigrafea Ibai Parkearen atxikitzeari dagokio (1.1 oharra ikusi).

Ez da gertatu gorabeherarik, ekitaldi honetan edo etorkizunekoetan hondar-balioei, bizitza erabilgarriei edo amortizazio-metodoei eragiten dionik.

Ez da balorazio-zuzenketarik egin ibilgetu ukiezineko ondasunetan.

Ez dago bizitza erabilgarria fidagarritasunez zehaztu ezin den ibilgetu ukiezinik.

2023ko abenduaren 31n, erabat amortizatuta dauden eta erabiltzen diren elementuak 19.555.272,71 euro dira (19.961.072,86 euro, 2022an).

Sozietateari atxikitako lursailak direla-eta (1.1) oharrean aipatzen direnak), beren arrazoizko balioa lortzea ezinezkoa denez, erabaki da lagatze horiek ez sartzea balantzean.

Ibilgetu ukiezinarekin lotutako dirulaguntzak, dohaintzak eta ondareak 801.804,75 eurotan kuantifikatuta daude (10. oharra), eta diruz lagundutako aktiboen zenbatekoa 3.503.013,36 euro da.

6. Errentamenduak eta antzeko izaera duten beste eragiketa batzuk

Errentari moduan, errentamendu operatiboko kontratuak dira bulegoak, aparkalekuko tokiak, edukiontzietarako zelai bat, ibilgailu elektrikoen karga-tresnak eta harpidetza informatikoak alokatzeak. Kontratu guztiek urte bateko iraupena dute.

Taldea errentari den errentamendu horien gaineko xehetasuna hau da:

	2023	2022
--	------	------

Higiezinak	213.001,01	203.851,19
Softwarearen harpidetza	427.545,25	279.839,29
Ibilgailuen birkarga	207,04	1.536,00
Beste batzuk	76.952,74	16.663,03

7. Izakinak

Izakin hauek zeuden 2022ko eta 2023ko abenduaren 31n:

	2023	2022
Eskualdeko Hiri Garraioko txartelak	41.710,88	34.808,40
Kontagailuak	48.626,53	89.732,12
Hodiak	219.664,08	134.806,11
Balbulak	284.465,37	269.229,87
Obretako beste material batzuk	863.788,60	870.662,13
GUZTIRA	1.458.255,46	1.399.238,63

Ekitaldiko kontsumoen xehetasunak 13 b) oharrean daude.

Taldearen politika da aseguru-polizak formalizatzea, bere izakinek izan ditzaketen arriskuak estaltzeko.

8. Finantza-tresnak

8.1 Finantza-tresnek finantza-egoeran eta enpresaren emaitzetan duten garrantziari buruzko informazioa

8.1.1 Finantza-aktiboen eta finantza-pasiboen kategoriak.

Bederatzigarren erregistro- eta balorazio-arauan adierazitako finantza-aktiboetako eta -pasiboetako bakoitzaren liburuetako balioa jarraian aurkezten da:

8.1.1.1 Finantza-aktiboak.

Finantza-aktibo ez-korrienteen mota bakoitzak ekitaldian zehar izan dituen mugimenduen analisia hau da:

	Kredituak, deribatuak eta beste batzuk	GUZTIRA
2022ko ekitaldiko hasierako saldoa	15.201.795,06	15.201.795,06
(+) Altak	7.153,42	7.153,42
(-) Irteerak eta murrizketak	-13.500.540,00	-13.500.540,00
(+/-) Traspasoak eta beste aldakuntza batzuk	70.788,66	70.788,66
2022ko ekitaldiko amaierako saldoa	1.607.049,26	1.607.049,26
(+) Altak	1.000.785,63	1.000.785,63
(-) Irteerak eta murrizketak	-904.182,84	-904.182,84
2023ko ekitaldiko amaierako saldoa	1.703.652,05	1.703.652,05

Finantza-aktiboen sailkapena, kategorien eta moten arabera, abenduaren 31n, eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk aintzat hartu gabe, hau da:

	Kredituak, deribatuak eta beste batzuk					
	Ez-korrientea, 2023/12/31n	Ez-korrientea, 2022/12/31n	Korrientea, 2023/12/31n	Korrientea, 2022/12/31n	Guztira, 2023/12/31n	Guztira, 2022/12/31n
Kostu amortizatuko finantza-aktiboak	1.703.652,05	1.607.049,26	42.197.379,87	34.591.992,24	43.901.031,92	36.199.041,50
Guztira	1.703.652,05	1.607.049,26	42.197.379,87	34.591.992,24	43.901.031,92	36.199.041,50

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, zordunen xehetasuna hau da:

	2023	2022
Bezeroak, salmentengatik edo zerbitzuak emateagatik	20.793.604,25	19.894.072,78
Hainbat zordun	68.464,01	77.844,34
Langileak	-1.531,54	
Aktiboak, zerga arruntengatik	22.798,47	
Beste kreditu batzuk administrazio publikoekin	16.959.660,55	5.958.017,32
Guztira	37.842.995,74	25.929.934,44

“Bezeroak, salmentengatik edo zerbitzuak emateagatik” atalak barne hartzen du 2.629.284,94 euroko zenbatekoa (897.515,95 euro 2022an), jaulkitzeko zain dauden fakturengatik diru-sarrerei dagokiena, nagusiki ur-kontsumoengatik diru-sarreraren kontzeptuan, 3.15) oharrean deskribatutakoaren arabera.

Epigrafe berberak ekitaldiko kaudimengabeziengatik hornidura ere barne hartzen du, sei hilabete baino gehiagoko abonatu-bezeroen zorra barne hartuta. Hau izan da mugimendua zehazki:

	Euroak
Saldoa, 2021eko abenduaren 31n	1.699.762,51
Ekitaldiko hornidurak	66.148,08
Ekitaldiko berreskuratzeak	-24.615,38
Saldoa, 2022ko abenduaren 31n	1.741.295,21
Ekitaldiko hornidurak	63.596,39
Ekitaldiko berreskuratzeak	-2.752,36
Saldoa, 2023ko abenduaren 31n	1.802.139,24

2023ko ekitaldian, kreditu kobraezinen galdera gisa 151.866,65 euro erregistratu dira (136.214,46 euro 2022an).

Epe laburrerako finantza-aktiboen banakatzea 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n hau da:

	2023	2022
Epe laburrerako gordailuak	21.228.225,20	14.516.852,71
Eratutako fidantzak	107.086,41	103.222,41
KOSTU AMORTIZATUKO AKTIBOAK EPE LABURRERA, GUZTIRA	21.335.311,61	14.620.075,12

Aktibo horien arrazoizko balioaren eguneratzea ekitaldian zehar aitortu da osorik, eta, beraz, ez dago aurreko ekitaldietako aldakuntzarik.

Eskudiruaren eta beste aktibo likido baliokide batzuen informazioa hau da:

	2023/12/31	2022/12/31
Altxortegia	7.733,90	6.552,00
Beste aktibo likido baliokide batzuk	8.400.472,19	20.536.222,96
GUZTIRA	8.408.206,09	20.542.774,96

8.1.2 Finantza-pasiboak

Sozietatearen balantzeko pasiboaren finantza-tresnak, kategorien arabera sailkatuta, hauek dira:

	Deribatuak eta beste batzuk		Deribatuak eta beste batzuk	
	Ez-korrientea		Korrientea	
	2023/12/31	2022/12/31	2023/12/31	2022/12/31
Kostu amortizatuko finantza-pasiboak	3.756.577,85		24.412.521,52	24.412.521,52

Guztira	3.756.577,85	24.412.521,52	24.412.521,52
----------------	---------------------	----------------------	----------------------

2023ko eta 2022ko balantzeko "Hornitzaileak" epigrafeko kontu-sail nagusiak hauek dira:

	2023	2022
Canal de Navarra, S.A.	341.735,22	307.323,08
Logista		42.071,75
Beste batzuk	234.792,25	173.600,79
GUZTIRA	576.527,47	522.995,62

Zor horien guztien mugaeguna urte batetik beherako epean dute eta haietako bakar bat ere ez dago benetako berme baten inolako motaren mende.

2023ko eta 2022ko balantzeko "Hainbat hartzekodun" epigrafeko kontu-sail nagusiak hauek dira:

	2023	2022
NILSA	3.638.303,52	3.787.548,45
Transports Ciutat Comtal, S.A. (Nota 17)	2.043.221,41	4.098.882,37
Fomento de Construcciones y Contratas, Medio Ambiente S.A.	3.139.425,46	2.112.293,17
ID&A S.R.L.	5.636,00	728.160,00
Fundación Traperos de Emaús	647.620,09	307.640,07
Lavola 1981, S.A.	147.590,87	244.742,01
Pamplona UTE FCC – Ros Roca		123.192,39
Iberdrola Renovab Energía, S.A.	123.810,89	679.923,58
Syder Comercializ Verde S.L.	224.781,07	304.566,13
Vanagua S.L.U.	97.196,83	61.672,65
Arazuri 2020, UTE	61.569,72	104.350,63
Envac Iberia, S.A.	220.581,95	100.514,23
Jenbacher, S.L.	291.494,67	
Algoritmia Business	123.199,33	
Beste batzuk	3.381.081,56	2.028.165,68
GUZTIRA	14.145.513,37	14.681.651,36

Bezeroen aurrerakinak.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, kontu-sail hauek osatzen zuten bezeroen aurrerakinen saldo hartzekoduna:

	2023	2022
Abonatutako bezeroenak	11.045,35	7.685,58
Bezeroenak, azpiegituren hitzarmenengatik	843.434,43	781.757,87
GUZTIRA	854.479,78	789.443,45

Azpiegituren hitzarmenengatik izandako aurrerakinak dira etxebizitzaren eraikitzaileek-sustatzaileek ordaindutako zenbatekoak beharrezkoak diren azpiegitura orokorrak handitzeagatik halakorik egitea behar zuten Iruñerriko hainbat tokitan –edateko uraren hornidura-zerbitzua eta hondakin-uren saneamendua emateko azpiegiturak–.

Epe luzerako zorrak.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, xehetasuna hau da:

	2023	2022
Epe luzerako zorrak, dirulaguntza bihur daitezkeenak	3.756.577,85	
GUZTIRA	3.756.577,85	8.385.796,23

Epe laburrerako zorrak.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, xehetasuna hau da:

	2023	2022
Ibilgetuen hornitzaileak epe laburrera	4.186.678,27	1.242.748,43
Eskualdeko Hiri Garraioko txartelen soberakinak	3.024.782,23	3.082.952,25
Epe laburrera jasotako fidantzak eta gordailuak	680.336,75	570.351,62
Dirulaguntza bihur daitezkeen zorrak	4.121.821,42	3.489.743,93
Aplikatzeko dauden kontu-sailak	233,21	
GUZTIRA	12.013.851,88	8.385.796,23

8.2 Finantza-tresnen izaerari eta arrisku-mailari buruzko informazioa

Taldeko finantza-arriskuen kudeaketa Mendeko Sozietateko finantza-zuzendaritzak eta Erakunde Menderatzaileko kontu-hartzailetzak egiten dute, eta haiek interes-tasetako aldakuntzekiko esposizioa eta kreditu- eta likidezia-arriskuekikoa kontrolatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezarrita dituzte.

Jarraian, Taldeari eragiten dioten finantza-arrisku nagusiak ageri dira:

a- Likidezia-arriskua.

Taldeak likidezia-arriskuaren kudeaketa zuhurra egiten du, eskudiru nahikoa mantentzean eta finantzaketa eskuragarri edukitzean oinarritutakoa, konprometitutako kreditu-erraztasunen zenbateko nahiko baten eta merkatuko posizioak likidatzeko gaitasun nahiko baten bidez.

b- Kreditu-arriskua.

Kreditu-arriskua da kontratu baten kontrapartidak bere kontratu-betebeharrak ez betetzea, Taldeari diru-galera eraginez. Taldearen finantza-aktiboak nagusiki merkataritza-zorrak osatzen ditu.

Taldeak zenbatesten du ez duela kreditu-arrisku esanguratsurik bere finantza-aktiboen gainean.

c- Merkatu-arriskua.

Finantzetakoak ez diren aktiboak direla-eta, Taldea ez dago merkatu-arriskuen pean.

9. Funts propioak

Hona hemen epigrafearen banakatzea, 2022ko eta 2023ko abenduaren 31n:

	2023	2022
Funts soziala	40.919.156,76	42.148.746,94
Erreserbak sozietate bateratuetan	60.390.389,84	57.623.681,11
Etekina	3.659.176,06	1.399.397,11
GUZTIRA	104.968.722,66	101.171.825,16

a) Funts soziala

Hauek osatzen dute gizarte fondoa: udal, kontzeju eta beste erakunde batzuek egindako ekarpenek —eskudiruzko entregetan gauzatuak—, ondasun ibilgetuen ekarpenek eta beste kontu-sail zordun eta hartzekodun batzuek, eta aurreko ekitaldietan Mankomunitateak eta Mendeko Sozietateak izandako emaitzek.

b) Erreserbak sozietate bateratuetan

2022ko eta 2023ko abenduaren 31n, erreserba hauen saldo osoa Mendeko Sozietateak, Iruñerriko Zerbitzuak SAK, emandakoei zegoki.

c) Ekitaldiko emaitza (etekina)

Ekitaldiko emaitza bateratua 3.659.176,06 euroko etekina izan da.

10. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta ondareak

2023ko eta 2022ko ekitaldietan xehetasuna eta mugimenduak hauek izan dira:

2023

	Saldoa, 2022/12/31n	Gehitzeak	Bajak	Doitzeak	Traspasoak	Saldoa, 2023/12/31n
Dirulaguntzak						
Udalak	16.276.240,07				505.715,35	16.781.955,42
NILSA	70.686.373,59	567.010,68	-13.102,50		5.756.077,45	76.996.359,22
Nafarroako Gobernua	130.672.339,21	709.904,05	-94.504,22		1.300.519,77	132.588.258,81
Estatua	641.250,35					641.250,35
Europar Batasuna	12.975.256,80					12.975.256,80
Beste batzuk	370.707,66					370.707,66
Bidean dauden dirulaguntzak						
Udalak	313.887,01	191.828,34			-505.715,35	
NILSA	1.042.153,81	4.713.923,64			-5.756.077,45	
Nafarroako Gobernua	1.873.708,36	2.954.474,53		-310.735,51	-1.300.519,77	3.216.927,61
Beste batzuk	1.795.508,98	1.411.653,34				3.207.162,32
Zerga-ondorioa	-148.489,74	-29.536,62	16.657,61	870,06		-160.498,69
GORDINA, GUZTIRA	236.498.936,10	10.519.257,96	-90.949,11	-309.865,45		246.617.379,50
Emaitzetara transferituak	-188.117.803,94	-5.949.146,24	107.606,72			-193.959.343,46
GARBIA, GUZTIRA	48.381.132,16	4.570.111,72	16.657,61	-309.865,45		52.658.036,04

2022

	Saldoa, 2021/12/31n	Gehitzeak	Bajak	Saldoa, 2022/12/31n
Hornidura	76.754.575,35	3.220.133,29		79.974.708,64
Arteta etxea	103.232,26			103.232,26
Chinchilla	678.064,88			678.064,88
Kogenerazioa	2.423.988,34			2.423.988,34
Eugiko minizentrala	312.261,85			312.261,85
Urtasungo minizentrala	92.339,50			92.339,50
Beste batzuk	1.258.201,01	36.688,60		1.294.889,61
Ibai Parkea	909.830,86	256.270,04		1.166.100,90
Tokiko sareak	29.991.234,98	401.048,49		30.392.283,47
Hiri-hondakinak	38.801.977,59	4.388,80	-2.923.168,45	35.883.197,94
Saneamendua	82.501.105,25	1.593.529,20	-4.925,00	84.089.709,45
Dokumentuen kudeak. aplik.	236.649,00			236.649,00
Zerga-ondorioa	-153.457,26	-15.433,77	20.401,29	-148.489,74
GORDINA, GUZTIRA	233.910.003,61	5.496.624,65	-2.907.692,16	236.498.936,10
Emaitzetara transferituak	-184.886.875,50	-6.159.021,89	2.928.093,45	-188.117.803,94
GARBIA, GUZTIRA	49.023.128,11	-662.397,24	20.401,29	48.381.132,16

Dirulaguntzak multzokatzeko irizpidea aldatu egin da 2023an: jatorriaren arabera gauzatzeri igaro da.

Ateratzeen zutabea ekitaldian baja emandako aktiboei lotutako dirulaguntzei dagokie (2.928.093,45 euro 2022an eta 107.606,72 euro 2023an).

2023ko abenduaren 31n, kobratu gabe zeuden dirulaguntza hauen 7.056.026,94 euro (302.190,46 euro 2022an), "Administrazio publikoak" epigrafean erregistraturik, aipatutako datan balantze bateratuaren aktiboarena (ikusi 12.1. oharra).

11. Hornidurak eta kontingentziak

Epigrafe honetan ondoko mugimenduak izan ziren 2022an eta 2023an:

2023

	Saldoa, 2022/12/31n	Finantza- eguneratzea	Espero zen etekina	Defizita aitortzea	Hornidura zuzkitzea	Saldoa, 2023/12/31n
Hornidurak, langileei epe luzerako ordainsariak emateagatik (3.11 eta 13.d oharrak)	0,00	904.182,84	-920.367,70	16.184,86		0,00
Hornidura, ingurumen-erantzukizunarengatik	320.000,00				633.342,42	953.342,42
HHTZko gelaxkak eraisteagatik hornidura (4. eta 16. oharrak)	27.934.895,36	865.981,76				28.800.877,12
GUZTIRA	28.254.895,36	1.770.164,60	-920.367,70	16.184,86	633.342,42	29.754.219,54

2022

	Saldoa, 2021/12/31n	Finantza- eguneratzea	Espero zen etekina	Defizita aitortzea	Hornidura zuzkitzea	Saldoa, 2022/12/31n
Hornidurak, langileei epe luzerako ordainsariak emateagatik (3.11 eta 13.d oharrak)	0,00	954.911,52	-888.141,57	-66.769,95		0,00
Hornidura, ingurumen-erantzukizunarengatik	96.000,00				224.000,00	320.000,00
HHTZko gelaxkak eraisteagatik hornidura (4. eta 16. oharrak)	26.428.472,43	1.506.422,93				27.934.895,36
GUZTIRA	26.524.472,43	2.461.334,45	-888.141,57	-66.769,95	224.000,00	28.254.895,36

2023an, "Hornidurak, langileei epe luzerako ordainsariak emateagatik" epigrafean erregistratutako mugimenduek ondokoak jaso zituzten: hornidura eguneratzeari dagozkion finantza-gastuak (904.182,84 euro), pentsio-planari lotutako aktiboetatik espero zen mozkina (-920.367,70 euro) eta superabita aitortzea (16.184,86 euro).

2023ko abenduaren 31n, Pentsio Planak 1.682.491,57 euroko soberakina zuen (1.585.888,78 euro 2022an), balantzean epe luzerako finantza-inbertsioen epigrafean ageri dena. Aktibo horren (1.682.491,57 euro) eta erreserba aktuariaren arteko diferentzia (1.588.055,26 euro 2023an eta 1.507.862,50 euro 2022an) azaltzen du urte bakoitzeko superabitaren/defizitaren zerga-ondorioak, zerga-ondorioaren garbiak.

Aktiboa	1.682.491,57
Erreserba aktuarialak	1.588.055,26
Diferentzia	94.436,31
Superabitaren zerga-ondorioa	4.710,98
P eta G 2012	7.402,22
P eta G 2013	90.598,62
P eta G 2014	89.143,30
P eta G 2015	71.231,01
P eta G 2016	58.540,04
P eta G 2017	18.247,32
P eta G 2018	43.617,50
P eta G 2019	-97.066,41
P eta G 2020	-64.500,19
P eta G 2021	-77.044,62
P eta G 2022	-66.582,99
P eta G 2023	16.139,54
GUZTIA	94.436,31

2023ko ekitaldian, 320.000 euro zuzkitu dira ingurumen-erantzukizunarengatiko hornidurara. 2022ko abuztuaren 9an, zehapen-prozedura bat hasteko ebazpen bat igorri zuen Landa Garapenerako eta Ingurumenerako Departamentuak. Zehazki, hau ebatzi zuen:

“Zehapen-espedientea abiaraztea IRUÑERRIKO ZERBITZUAK SAr, administrazioa arau-hauste larri baten ustezko erantzule moduan. Arau-haustea jarraitua eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integraturako legearen testu bateginaren 31.3 artikuluan sailkatua, b) letran, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsian”.

2022ko azaroaren 8an, zehapen-proposamena jaso zen, eta bertan hau proposatzen da:

1.- IRUÑERRIKO ZERBITZUAK SAr zehapen hauek ezartzea, 17/2020 Foru Legean, abenduaren 16koan, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituenen, jasota dagoenaren aurkako arau-hauste larri baten erantzule moduan:

- 160.000,00 euroko isuna.

2.- Zehapena gorabehera, IRUÑERRIKO ZERBITZUAK SAr jarduketa hauek gauzatu beharko ditu:

- Berehala, bere ontzi edo tokietan aurretik tratamendu-prozesurik egin ez zaien hondakinak isurtzeari utzi behar dio, eta bai hondakin biodegradagarriak ere.

IZSAk 2022ko azaroan alegazioak aurkeztu zizkion ebazpen-proposamenari. Hain zuzen, eskatu zuen:

“Onar daitezela alegazio hauek eta baliogabetu dadila ebazpen-proposamena, defentsa-gabezia eragiteagatik.

Subsidiarioki, zehapena maila baxuenean ezar dadila edo, halakorik ezean, gradu minimoan, ez baita justifikatu inguruabar larrigarrietako bakar baten konkurrentziarik eta, gainera, neurri ugari hartu baitira, oso kualifikatua den inguruabar aringarri bat legez eratzen dutenak”.

2023ko uztailaren 18an, zehapen-proposamena jaso zen, eta bertan hau proposatzen da:

1. IRUÑERRIKO ZERBITZUAK SAr zehapen hauek ezartzea, 17/2020 Foru Legean, abenduaren 16koan, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituenen, jasota dagoenaren aurkako arau-hauste larri baten erantzule moduan:

- 160.000,00 euroko isuna.

2. Zehapena gorabehera, IRUÑERRIKO ZERBITZUAK SAr jarduketa hauek gauzatu beharko ditu:

- Berehala, bere ontzi edo tokietan aurretik tratamendu-prozesurik egin ez zaien hondakinak isurtzeari utzi behar dio, eta bai hondakin biodegradagarriak ere”.

2023ko otsailaren 18an, IZSAk gora jotzeko helegitea aurkeztu zion Landa Garapenerako eta Ingurumenerako kontseilariari, Ingurumenerako zuzendari nagusiaren uztailaren 14ko 699E/2023 Ebazpenaren aurka, haren bidez zehapena jarri baitzitzaion Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietateari, ustez 17/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituenen, urratzeagatik.

Oraindik ez da helegite horren gainera erantzunik jaso. Hain zuzen, bertan eskatu zen zenbatespena hitzartzeko, arau-hauste larri batengatik zehapena eta gutxieneko mailan ezarrita, hau da, 20.001 euroko isuna.

- 2022ko abenduaren 15ean, beste ikuskatze bat egin da zabortegira, eta ikuskatzearen zirriborroa jaso da 2022ko abenduaren 27an.

- 2023an, bi ikuskatze egin ziren, ekainaren 16an eta azaroaren 23an. Azaroko ikuskatze horren behin betiko txostena falta zaigu.

2023ko ekitaldian ez da Gongorako zabortegiarekin lotutako eraiste/birgaitze/kentze kostuen balorazio berririk egin (4. oharra).

865.981,76 euroko finantza-eguneratzea egin da.

586/2022 Prozedurako epaiari dagokion erantzukizunengatiko hornidura egin da. Epai horri helegitea aurkeztuko zaio.

Mendeko Sozietateak abalak ditu aurkeztuta zenbait erakunde publiko eta sozietateren aurrean, xehetasun hauen arabera:

	2023	2022
Canal de Navarra, S.A.	250.000,00	250.000,00
Beste batzuk	165.000,00	115.000,00
GUZTIRA	415.000,00	365.000,00

12. Zerga-egoera

12.1 Saldoak administrazio publikoekin

Administrazio publikoekin dauden saldoen osaera hau da:

	Zordunak, 2023/12/31n	Zordunak, 2022/12/31n	Hartzekodunak, 2023/12/31n	Hartzekodunak, 2022/12/31n
Isurketen gaineko zergarengatik			832.376,00	489.445,04
Energia-zergarengatik				
Udalak, EHGaren eta Ibai Parkearen ekarpenengatik	7.876.128,13	2.252.271,00		
NILSA	3.498.649,87	928.840,66		
Ogasun Publikoa, atxikipenengatik		13,17	945.880,22	937.768,82
Nafarroako Gobernua eta udalak, dirulaguntzengatik	4.509.802,33	341.674,88		
Estatua, dirulaguntzengatik		1.620.535,61		
Ogasun Publikoa, sozietateen zergarengatik	22.798,47			97.424,66
Ogasun Publikoa, BEZarengatik	316.691,52	702.007,77	915.407,28	805.325,10
Jasanarazitako BEZa	758.388,70	112.674,23		
Gizarte Segurantzako organismoak			694.434,91	619.683,18
Guztira	16.982.459,02	5.958.017,32	3.388.098,61	2.949.646,80

NILSAren saldoa, 3.498.649,87 euro, 2023ko dirulaguntzei dagokie (928.840,66 euro 2022an), hondakin-urak saneatzea kudeatzeko eta ustiatzeko kontzeptupean ordaintzeko daudenak (3.9.1.3 oharra) eta goi-saneamendurako kapitaleko dirulaguntzak.

12.2. Etekinen gaineko zergak

2023ko ekitaldian, Sozietatearen etekinen gaineko zerga kalkulatu da indarrean dagoen araudiaren arabera lortutako kontabilitateko emaitza ekonomikoan oinarrituta. Emaitza horrek ez du nahitaez bat etorri behar zerga-emaitzarekin, azken hori zergaren zerga-oinarri moduan ulertua.

Etekinen gaineko zergagatiko gastuak barne hartzen du zerga arrunt edo korrientearengatiko gastuari dagokion zatia eta bai zerga geroratuarengatiko gastuari dagokiona. Etekinen gaineko zergagatiko gastuaren osaera hau da:

	2023	2022
Ekitaldiko kontabilitate-emaitza, zergen aurretik	1.329.656,64	2.941.945,48
Kontabilitatetik kanpoko doitzeak	-715.500,14	-1.400.624,20
Zerga-oinarria, konpentsazioen aurretikoa	614.156,50	1.541.321,28
BIN konpentsatzea (zerga-oinarri negatiboa)	-259.568,65	-1.000.000,00
Oinarri likidagarria	354.587,85	541.321,28
Kuota osoa % 28an	99.284,60	151.569,96

% 99ko hobaria, zerbitzu publikoen kuotaren gainean		-
Kuota likidoa	99.284,60	151.569,96
Kenkaria KL % 25	-24.821,15	-37.892,49
Kenkaria SL	-10.637,64	-16.239,64
Kuota efektiboa	63.825,81	97.437,83
Atxikipenak eta kontura egindako ordainketak	-86.624,28	-13,17
Ogasun Publikoa hartzekodunak sozietateen gaineko zergarengatik	-22.798,47	97.424,66

Sozietateen gaineko zerga arautzen duen 26/2016 Foru Legean, abenduaren 28koan, xedatutakoarekin bat, Sozietateak % 99ko hobaria du zerbitzu publikoetatik —udalen eskumenekoak— etorritako errentei dagokien kuota osotik.

Kuota likidoaren eta sozietateen gaineko zergarengatik izandako gastuaren arteko berdinkatzea hau izan zen:

	2023	2022
Zerga korrientea edo arrunta	63.825,81	97.437,83
Zerga geroratua	6.681,60	7.738,65
Sozietateen gaineko zergaren gastua, guztira	70.507,41	105.176,48

Ondokoak dira denbora-desberdintasunen xehetasunak gastuak eta diru-sarrerak aitortzean, kontabilitate- eta zerga-ondorioetarako. Xehetasun hauetan ere agertzen da behar den zerga-ondorio metatua, aurreratua edo geroratua, behin kontuan harturik denbora-desberdintasunen zerga-ondorioaren gaineko % 99ko hobaria. Denbora-desberdintasun hauek sortu dira zerbitzu publiko eta minizentral elektrikoetatik etorritako errenten ondorioz. Hona hemen:

	2023	2022
Aktiboak zerga geroratuarengatik	53.698,57	60.605,34
Dirulaguntzak	35.861,28	43.376,41
Hornidurak zabortegia eraisteagatik	21.669,49	21.669,49
Pentsio-plana	-4.711,05	-4.440,56
Beste batzuk	878,85	
Pasiboak zergei lotutako denbora-desberdintasunengatik	160.497,87	148.488,24
Dirulaguntzak	160.497,87	148.488,24

Indarrean dagoen legediari jarraiki, zergak ezin dira behin betiko likidatutzat hartu, harik eta aurkeztutako aitordenak agintari fiskalek ikuskatu arte, edo lau urteko preskripzio epea iragan arte. 2023ko abenduaren 31n, Mendeko Sozietateak irekita zituen 2020ko urtarrilaren 1etik (2019ko urtarrilaren 1etik, sozietateen gaineko zergarako) ezarri ahal zitzaizkion zerga nagusi guztiak, agintari fiskalek ikuska zitzaten. Ikuskapena eginez gero, Mendeko Sozietateko administratzaileen ustez ez da pasibo garrantzitsu gehiagorik agertuko.

Aurkeztutako sozietateen gaineko zergaren aitordenekin eta 2024an aurkeztuko den horrekin bat, Sozietateak aplikatzen ahal diren kenkariak ditu inbertsioengatik, babesletzarengatik, pentsio-planarengatik eta enplegua sortzeagatik, ondoko xehetasunaren arabera:

Jatorrizko urtea	Inbertsioak	Babesletza	Pentsio-plana	Enplegua sortzea	Aplikagarriak urte hau arte
2009	705.994,24		-		2024
2010	90.553,71		-		2025
2011	1.379.972,37		-		2026
2012	306.165,64		-		2027
2013	947.942,38		11.436,67		2028
2014	23.463,48		33.867,78		2029
2015	373.483,88				2030
2016	320.650,22				2031
2017	363.857,33				2032

2018	476.559,76				2033
2019	881.367,94				2034
2020	768.245,94			32.433,07	2035
2021	1.661.332,11	900			2036
2022	1.640.029,22				2037
2023	1.798.562,02		31.390,90		2038
	11.738.198,23	900	76.695,35	32.433,07	

Taldeak, zerbitzu publikoen kuotaren gainerako % 99ko hobaria izateagatik zerga-erregimen berezia duela kontuan harturik, erabaki du aipatutako zerga-kredituak ez aktibatzea, beren konpentsazio-aldian ziur aplikatuko diren zehazterik ez baitago.

Taldeak konpromisoa du inbertsioengatik izandako zerga-arintzeari lotzen zaizkion aktibo finakoak bost urtez mantentzeko.

2023ko abenduaren 31n ordainduta eta ordaintzeko zain dauden oinarri likidagarri negatiboak hauek dira:

Jatorrizko urtea	Zenbatekoa	Aurreko ekitaldietan konpentsatua	Ekitaldian konpentsatzeko zain dagoen zenbatekoa	Egungo ekitaldian konpentsatua	Pendiente, 2023/12/31n	Muga
2018	1.012.330,59	1.012.330,59				2033
2020	1.424.443,65	1.164.875,00	259.568,65	259.568,65	-	2035
	2.436.774,24	2.177.205,59	259.568,65	259.568,65	-	

12.3 Beste zerga batzuk

Ikuskatzeko zabalik dauden ekitaldiak azkeneko laurak dira. Zergen aitortpenak ezin dira behin betikotzat jo preskribatu arte edo zerga-agintariek onartu arte, eta alde batera utzirik zerga-legeriari interpretazioak egin ahal zaizkiola.

Administratzaileek uste dute agerian jar daitekeen edozein zerga-pasibo gehigarrik, egin litekeen ikuskatzen baten ondorioz, ez duela eragin esanguratsurik izango urteko kontuetan, oro har hartuta.

13. Diru-sarrerak eta gastuak

A) "Negozio-zifraren zenbateko garbia" epigrafeak, 2022ko eta 2023ko ekitaldietako galera eta irabazien kontu bateratukoak, xehetasun hauek ditu:

	2023	2022
Hornidura-zerbitzuak	20.368.952,38	20.499.009,45
Saneamendu-zerbitzuak	7.704.676,50	7.267.266,46
Kontratazio- eta lotura-zerbitzuak	883.329,11	709.150,84
Kontagailuen alokairua		5,76
Zaborrak biltzeko zerbitzuen fakturazioa	40.338.576,73	37.377.873,28
Materialak eta zerbitzuak saltzea beste batzuei	10.391,48	12.526,37
Konponketa-lanak eta instalazio berrietakoak partikularrei	357.149,88	746.768,94
Diru-sarrerak, zabortegien ustiapena eta material berreskuragarria dela-eta	1.157.326,50	2.366.453,85
Lohiekin lotutako diru-sarrerak	154.729,85	150.374,33
Aprobetxamendu elektrikoa	3.629.018,55	6.492.642,98
Taxiengatiko diru-sarrerak	54.762,75	53.326,35
Hainbat tasa	104.234,50	98.656,00
GUZTIRA	74.763.148,23	75.774.054,61

B) 2022ko eta 2023ko ekitaldietako "Ur-kontsumoa" eta "Izakin komertzialen kontsumoa eta beste hornidura batzuk" epigrafeetan ondoko kontzeptuak jaso dira:

	2023	2022
Ur-kontsumoa		

- Ebroko Ur Konfederazioari erositako ura	398.250,61	318.715,11
- Nafarroako Ubideari erositako ura	1.327.052,10	1.217.904,63
Izakin komertzialen kontsumoa eta beste hornidura batzuk		
- Izakin komertzialak erostea	50.235,13	92.019,98
- Erreaktibo kimikoak erostea	1.108.748,46	887.770,59
- Obretako materialak erostea	665.120,44	560.307,38
- Energia erostea ekoizpen-prozesurako	2.250.218,83	4.337.358,44
- Beste hornidura batzuk erostea	305.796,63	154.695,59
- Eskualdeko Hiri Garraioko txartelak erostea	33.541,20	47.704,25
- Izakinen aldaketak	-145.248,56	-82.738,82
GUZTIRA	5.993.714,84	7.533.737,15

C) Ondoko kontu-sailek osatzen dute 2023ko eta 2022ko ekitaldietako "Ustiatzetik etorritako beste diru-sarrera batzuk" epigrafea (3.9.1.3 eta 3.15 oharra):

	2023	2022
Eskualdeko Hiri Garraioa, ekarpenak	31.617.831,20	23.611.538,57
NILSAren transferentzia, goi-saneamendua ustiatu eta kudeatzeagatik	10.407.932,87	9.127.694,97
Ibai Parkea, ekarpenak	468.412,30	396.156,52
Beste diru-sarrera batzuk	612.214,95	1.573.989,34
Beste dirulaguntza batzuk	569.241,00	345.857,31
Aparteko diru-sarrerak	28.077,08	265.441,79
GUZTIRA	43.703.439,40	35.320.678,51

D) "Langileen gastuak" atalaren 2023ko, 2022ko eta 2021eko ekitaldietako kontuak honela banakatu dira:

	2023	2022	2021
Langileen soldatak	21.003.569,97	19.127.642,07	18.367.414,36
Langileen antzinatasuna	1.021.082,55	1.020.385,49	976.035,05
Aparteko orduak	39.299,58	30.020,80	22.858,47
Plusak	730.857,48	698.586,06	721.946,22
Telelana	10.142,00	12.136,00	1.984,00
Langileen garraioa	8.038,13	10.649,86	6.196,99
Kalte-ordainak	-859.870,09	26.821,06	139.134,18
Lansariak, soldatak eta antzekoak, guztira	21.973.065,72	20.926.241,34	20.235.569,27
Langile lan-kontratudunen Gizarte Segurantza	7.892.514,03	7.057.137,52	6.690.647,71
Administrazio-organoetako kideen ordainsariak (14. oharra)	122.711,40	112.388,06	103.038,62
Beste gastu sozial batzuk	289.737,35	309.444,28	328.552,84
Karga sozialak, guztira	8.304.962,78	7.478.969,86	7.122.239,17
Pentsio-funtserako hornidura	523.604,32	508.353,71	491.163,01
Hornidurak, guztira	523.604,32	508.353,71	491.163,01

Langileen ordainsariak igotzearekin lotuta, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 19. artikuluko BIGARREN atalean, 1. eta 2. puntuetan, hau jasotzen zuen:

Bi. 1. 2023an, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezin izango dira gehitu 2022ko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko 2,5 gehiago, homogeneotasunaren arabera bi aldietarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinatasunari begira.

2. Halaber, egokia bada, gehikuntza hauek aplikatuko dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko eta, bi kasuetan, 2023ko urtarrilaren 1eko eraginekin:

a) Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatuaren bilakaerari lotutako gehikuntza. 2022ko indize harmonizatu horren eta 2023ko iraileko indize aurreratu horren batura ehuneko 6 baino handiagoa balitz, gehienez ere ehuneko 0,5eko ordainsari-gehikuntza gehigarria aplikatuko da.

Eragin horietarako, behin kaleratuta Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko iraileko Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatu aurreratuaren datuak, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministroen Kontseiluaren akordio bidez eta Estatuko Aldizkari Ofizialean emango da argitara.

b) 2023ko Barne Produktu Gordin nominalaren bilakaerari lotutako gehikuntza. Barne Produktu Gordin nominalaren gehikuntzak aurrekontuen lege hau egitearekin batera dagoen taula makroekonomikoan Gobernuak zenbatetsitakoa berdintzen edo gainditzeko badu, ehuneko 0,5eko ordainsari-gehikuntza gehigarria aplikatuko da.

Eragin horietarako, behin kaleratuta Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko Barne Produktu Gordinaren aurrerapenaren datuak, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministroen Kontseiluaren akordio bidez eta Estatuko Aldizkari Ofizialean emango da argitara.

Mendeko Sozietatearen lan-hitzarmen kolektiboa 2022an salatu egin zen, Batzordearen gehiengoaren adostasunez, nahiz eta indarrean jarraitzen duen aurreraeraginarengatik (2. artikulua). Hain zuzen ere, 8. artikulua ezartzen du adostutako soldata-igotzea:

2017ko urtarilaren 1etik aurrera, ordainsari-kontzeptu guztiak formula honen arabera emendatuko dira:

- Ordainsarien aplikazioko balioak eguneratuko dira aurreko urteko Nafarroako KPIarekin, baldin eta KPI hori positiboa bada. Hartara, aurreko urteko Nafarroako KPIa negatiboa izan bada, aurreko urteko balioei eutsiko zaie.

- Ordainsarien aplikazioko balioak emendatuko dira % 1eraino, aurreko ekitaldiko betetze mailaren arabera, helburuen balorazio eskema honi jarraituta (VII. eranskina), hiru tartetan banatuta:

- Lehen tartea (helburuen betetzearen % 70): %1/3 lineala, sendo daitekeena hurrengo tartea betetzen bada.

- Bigarren tartea (helburuen betetzearen % 80): %1/3 proportzionala eta sendo daitekeena. Hau lortzeko aurreko tartea sendotzea dakar.

- Hirugarren tartea (helburuen betetzearen % 90): %1/3 proportzionala eta sendo daitekeena.

Hitzarmen honen maila goragoko araudiak ezinezko egiten badu hitzarmena betetzea ordainsariei dagokienez, IZSAk konpromisoa hartzen du hitzartutako baldintzak aplikatzeko legeak horretarako aukera eman bezain laster eta modu horretan jasoko da ordaintzeko dagoen zenbateko osoa, kontingentzia moduan, dagokien urteetako Urteko Kontuetan.

Estatistikako Institutu Nazionalaren datu ofizialen arabera, Nafarroako KPIa 2022an % 6,4koa izan zen. Eta Administrazio Kontseiluari onartzeko helburuarekin 2023ko urtarileko saioan aurkeztutako datuen arabera, helburuen betetze-maila, globalki kuantifikatua, % 84,03koa izan zen. Horrenbestez, 2023ari % 0,66ko gehikuntza egokituko litzaioke, honela banakatuta: % 0,333 (% 1/3), lineal eta sendo daitekeena, % 0,333 (% 1/3), proportzionala eta sendo daitekeena. Hau da, guztira, lan-hitzarmen kolektiboarengatik, % 7,06ko soldata-igoera egokituko litzateke (% 6,73 proportzionala eta % 0,33 lineala).

Hala ere, aurrekontuen araudi mugatzailea aintzat hartuta, 2023an, hasieran, % 2,5a aplikatu zen langileentzako ordainsari-gehikuntza moduan: 2023ko Aurrekontuen Legeak gehieneko muga moduan baimendutakoa.

Ondoren, Funtzio Publikoko Estatuko Idazkaritzaren 2023ko urriaren 4ko Ebazpena kaleratu zen, zeinak Ministroen Kontseiluaren 2023ko urriaren 3ko Akordioa kaleratzen zuen. Haren bidez, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. artikuluan, Bi.2.a) atalean, jasotako aplikatzean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariak ehuneko 0,5 emendatzea onartu zen. Ebazpen horretan, aitortu zen ordainsariak emendatzea KPIaren gehikuntzarengatik, eta hori ikusirik langileen soldatak % 0,5 handitu ziren 2023ko urtarilaren 1eko eraginarekin.

2024. urtean, Aurrekontuen eta Gastuen Estatuko Idazkaritzaren 2024ko otsailaren 7ko Ebazpena kaleratu zen, zeinak Ministroen Kontseiluaren 2024ko otsailaren 6ko Akordioa kaleratzen zuen. Haren bidez, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Artikuluan, Bi.2.b) atalean, jasotako aplikatzean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariak ehuneko 0,5 emendatzea onartu zen. Ebazpen horretan, aitortu zen ordainsariak emendatzea KPIaren gehikuntzarengatik, eta hori ikusirik langileen soldatak % 0,5 handitu ziren 2023ko urtarilaren 1eko eraginarekin. Egokia zen hornidura zuzkitu zen.

Hortaz, eta aintzat hartuta 2023ko urtarilaren 1eko datarekin onartutako eta aplikatutako soldata-gehikuntza guztiak (% 2,5 + % 0,5 + % 0,5 = % 3,5) indarrean zegoen lan-hitzarmen kolektiboa bete gabe gelditu zen % 3,56an (% 3,23 proportzionala eta % 0,33 lineala).

Erakunde Menderatzaileko langileen kasuan, 2023ko urtarilaren 1eko eraginarekin, eta lehenbizi "Nafarroako Gobernuaren AKORDIOA, 2023ko otsailaren 22koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen langileei ehuneko 2,5 emendatzen zaizkien 2022rako ezarritako ordainsariak, 2023ko urtarilaren 1eko eraginekin" eta ondoren "Nafarroako Gobernuaren AKORDIOA, 2023ko urriaren 25ekoa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen langileei ehuneko 0,5 emendatzen zaizkien 2022rako ezarritako ordainsariak, 2023ko urtarilaren 1eko eraginekin" izenekoetan xedatutakoaren arabera, ekitaldiaren amaieran, Iruñerriko Mankomunitateko langileen ordainsari-oinarriak % 3 emendatu ziren 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta. Amaitu eta gero, Ministroen Kontseiluak 2024ko otsailaren 6an egin zuen saioan, Gobernuak, CCOO eta UGT sindikatuek 2022ko urrian izenpetu zuten akordioa aplikatuz, onartu da enplegatu publikoen % 0,5eko soldataren gehikuntza gehigarri bat, 2023ko urtarilaren 1eko atzeraeraginezko ondorioekin, eta hori aplikatzeak berekin ekarriko du 2023ko ekitaldian aurreikuspen-izaerarekin erregistratutako atzerapenen likidazio bat. Azkenean, soldata gehikuntza % 3,5ekoa izango da 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden mailen aldean. Erakunde Menderatzaileko langileek ez dute parte hartzen Pentsio Planean.

e) 2022ko eta 2023ko ekitaldietako "Ustiapeneko beste gastu batzuk" epigrafean ondoko kontzeptuak jaso dira:

	2023	2022
Kanpoko zerbitzuak:		
- Ikerketa eta garapeneko gastuak		33.943,62
- Errentamenduak eta kanonak	1.651.947,21	1.354.285,01
- Konpontze-, kontserbatze- eta berriztatze-lanak	5.310.164,30	5.240.957,72
- Profesional independenteek emandako zerbitzuak	1.846.174,69	1.628.944,16
- Garraioak	452.360,06	566.733,45
- Aseguru-primak	558.749,17	544.150,70
- Banku-zerbitzuak eta antzekoak	35.637,97	128.760,57
- Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	1.730.931,20	2.947.036,97
- Hornidurak	507.207,86	617.584,79
- Beste zerbitzu batzuk	3.469.661,20	2.845.133,72
Zergak	3.115.688,27	1.881.951,84
Hornidurak galtzea, narriatzea eta aldatzea, eragiketa komertzialengatik (9. oharra)		
- Ekitaldiko hornidurak	63.596,39	66.148,08
- Ekitaldiko berreskuratzeak	-2.752,36	-24.615,38
- Kobraezinak diren kreditu komertzialen galerak	151.866,65	136.214,46
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk		
- Garraio publikoaren transferentziak	27.461.418,42	23.149.500,04
- Iberdrolaren kanona	638.793,96	1.430.284,31
- Ibai Parkeko kontzejuak, konpentsazioa	8.399,99	8.399,99
- Beste batzuentzako kalte-ordainak	32.200,91	27.441,65
- CO2 xurgapenak eskuratzea	28.945,00	
Aparteko gastuak	634.309,36	226.828,23
GUZTIRA	47.698.300,25	42.809.683,92

"Errentamenduak eta kanonak" epigrafeak 717.706,04 euro jasotzen ditu, nagusiki, ondokoak alokatzeari dagozkionak: bulegoak, aparkalekuak, zelai bat edukiontzietarako, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak eta harpidetza informatikoak (ikusi 6. oharra).

"Garraio publikoaren transferentziak" atalak barne hartzen du, likidazioaren estimazioan emandako eta jasotako kalitatearengatik, pizgarrien eta zigorren aurreikuspena enpresa kontzesiodunarekin.

"Finantzetakoak ez diren ibilgetuen dirulaguntzak egozte eta beste batzuk" atalean sartutako epigrafeek, 2023ko ekitaldian, 5.949.146,24 euroko kopurua hartu zuten (ikusi 10. oharra) (6.159.021,89 euro 2022an).

14. Administrazio-organoei dagokien informazioa

Mankomunitateko eta Mendeko Sozietateko administrazio-organoetako kideek 2023ko ekitaldian hainbat ordainsari jaso dituzte, saioetan benetan egoteagatik ematen den ordainketa gisa (Batzarrak eta Administrazio Kontseiluak, edo Erakunde Menderatzailearen edo Mendekoaren ohiz kanpoko bilerak) (13.d) oharra). Horrez gainera, Erakunde Menderatzailean ordainsariak daude, soldata gisa.

Hona hemen Taldean kontzeptu hauengatik sortutako zenbateko osoa:

	2023	2022
Dietak	122.711,40	112.388,06
Goi-kargudunen soldatak	54.395,92	56.577,79
GUZTIRA	177.106,92	168.965,85

Taldeak aseguru-poliza bat du kontratatuta, Administrazio Kontseiluko kide guztien erantzukizun zibila estaltzen duena, beren eginkizunek sortzen ahal dituzten erantzukizunei —Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean jasoak— aurre egiteko. Gainera, administrazio-organoetako kide hauek bizi- eta istripu-aseguru bat dute. Hori dela-eta, 3.338,56 euro ordaindu ziren 2023an (6.887,80 euro 2022an).

Administrazio-organoko egungo edo lehengo kideekin Taldeak ez du beste inolako betebeharririk hartu (pentsioak, etab). 2023an kide hauei ez zaie inolako aurrerakinik edo mailegurik eman inolako kontzepturengatik.

2023ko abenduaren 31n, Urteko Kontuak formulatzearen arduradunek eta haiei lotutako pertsonen (231. artikulua aipatzen dituenak) ez dute jakinarazi gatazka-egoerarik, zuzenik edo zeharkakorik, Taldearen interesa dela-eta egon daitekeenik.

Taldeko goi-zuzendaritza administrazio-organoekin bat dator.

15. Ekitaldia itxi ondorengo gertakariak

Egun oraindik ez da behin betiko likidatu enpresa kontzesiodunak (TCC) 2023ko ekitaldian bidaiarien garraio publikoko zerbitzuak emateagatik konpentsazioa. Kontzesioari dagozkion plegu edo agirian eta kontratuan bildutako xedapenetan oinarrituta egindako kalkuluen arabera, eta 2013ko ekainaren 27an Iruñerriko Mankomunitateko Batzar Nagusiak hartu zuen akordioan hitzartu zituen denbora-aldaketak eginda (Batzar Nagusiak berak 2016ko abenduaren 29an hartu zuen akordioaren arabera, kontratua amaitu arte luzatutakoak, aldi berean 2021eko ekainaren 30eko eta 2023ko apirilaren 27ko saioetan Batzar Nagusiak berak luzatutako kontratua), aurreikusten da 2.043.221,41 euroko ordainketa gehigarri bat egiteko beharra kontzeptu honen arabera (8.1.2 oharra).

16. Ingurumenari buruzko informazioa

Taldearen jardueren zerrendan (1. oharrean egina) antzematen ahal den bezala, jarduera askoren berehalako helburua da ingurumen inpaktua gutxitzea, jarduketa berberak eragindakoa izan ezik, Iruñerriko esparruan gauzatutakoek sortu dutena ere. Horrela, nolabaiteko lotura antzeman liteke Taldearen ia gastu eta inbertsio guztien eta ingurumena babesteko jardueraren artean.

Taldeak 28.800.877,12 euroko hornidura bat zuzkitu du 2023an (27.934.895,36 euro 2022an), Gongorako zabortegia itxi, zigilatu eta bertan berriz landatzeagatik (ikusi 11. oharra).

17. Bestelako informazioa

17.1 Langileen egitura

Hona hemen enplegatuen kopurua, 2022ko eta 2023ko ekitaldien bukaeran, talde profesionalen arabera banatuta:

Talde profesionala:	Enplegatuen kopurua	
	2023	2024

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Desgait. ≥ % 33	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Diesgait. ≥ % 33
IZSA								
Zuzendaritza	14	5	9					
Espezialista	122	25	97	3	114	19	95	3
Tarteko burutza	25	5	20					
Burutza operatiboa	24		24					
Profesionala	288	183	105		230	84	147	
Unibertsitate-teknikaria	68	37	31					
Teknikaria					87	26	61	
Tituluduna edo parekatua					88	33	55	
IM								
Unibertsitate-teknikaria	5	3	2		6	4	2	
Guztira	525	165	360	3	525	165	360	3

Enplegatuen batez besteko kopurua ekitaldian zehar hau izan da, kategorien arabera adierazita:

Talde profesionala	2023	2022
Zuzendaritza	15,98	
Espezialista	110,23	111,27
Tarteko burutza	22,22	
Burutza operatiboa	23,32	
Profesionala	265,83	220,74
Unibertsitate-teknikaria	63,98	87,85
Teknikaria		
Tituluduna edo parekatua		77,71
GUZTIRA	501,56	497,57

17.2 Auditoretza-ordainsariak

Mankomunitatearen urteko kontu bateratuen auditoretza egin duen enpresak eta horrekin loturaren bat duten beste enpresa batzuek —Finantza Sistema Berritzeko Neurrien gaineko Legearen hamalagarren xedapen gehigarriak aipatutako loturaren bat— ebatzi dute Erakunde Menderatzaileari, zerbitzu sari eta gastu gisa, 19.602 euro fakturatzea (14.500 euro 2022an), 2023ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldian Taldeari emandako auditoretza-zerbitzu profesional guztiengatik. Aipatutako zenbatekoak 2023ko ekitaldiari dagozkion zerbitzu-sari guztiak hartzen ditu barne, beren fakturazioaren unea edozein izanik ere. Auditoreak eta hari lotutako sozietateek ez dute kopuru gehigarririk jaso, emandako beste zerbitzu batzuegatik.

18. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiari buruzko informazioa. Hirugarren xedapen gehigarria. Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen "Informazio-betebeharra"

2022ko eta 2023ko fakturen zenbatekoak eta ordainketa-ratioak hauek izan dira:

	2023	2022
	Egunak	Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia	37,41	36,50
Ordaindutako eragiketen ratioa	39,26	38,68
Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	22,40	13,79
		Zenbatekoa
Egindako ordainketak, guztira	48.754.106,39	50.087.302,36
Ordaintzeke dauden ordainketak, guztira	5.993.129,73	4.790.174,42

Ordaintzeko epea ezartzeko erabilitako irizpidea desberdina da Mendeko Sozietatearen -haren epea zenbatzen hasten da

fakturaren datatik aurrera- eta Erakunde Menderatzailearen artean -haren epea zenbatzen hasten da faktura FACE faktura elektronikoak igortzeko puntu orokorrean erregistratzen den egunetik aurrera, administrazio publiko izateagatik dagokion moduan-.

Modu gehigarrian, 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera (irailaren 28ko 18/2022 Legeak aldatu zuen), ezarritako epe maximoa baino laburragoa den aldi batean ordaindutako fakturei buruzko informazioa hau da:

	2023/12/31	2022/12/31
Eurotan ordaindutako moneta-bolumena	48.129.839,52	48.757.806,64
Hornitzaileei egindako ordainketen moneta-guztizkoaren gainean dakarren ehunekoa	% 98,72	% 97,35
Ordaindutako fakturen kopurua	9.006	9.237
Hornitzaileei ordaindutako fakturen guztizkoaren gainean dakarren ehunekoa	% 95,87	% 94,10